



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko abenduaren 13a

118. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (3. or.).
- Foru lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Osoko Bilkurak bazter utzi ditu osoko zuzenketak (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Mendetasun-egoera aitortzeko prozedura ezartzen duena eta Nafarroan mendetasun egoera balioesteko ekipoak taxutzeko langileen antolamendua, eginkizunak eta araubidea ezartzen dituena. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak onetsitako irizpena (4. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Osasun Mentalari buruzkoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (27. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroako Gobernuo kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko gainerako goi karguen gobernu onaren kodea, baita hari lotuta edo haren menpe diren zuzenbide publikoko entitateetakoena ere. Osoko Bilkurak aintzat hartua (38. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Foru Legebiltzarrerara igor dezan publizitate instituzionala arautzeko foru lege proiektu bat. Osoko Bilkurak onetsia (39. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak eta Baluarte Fundazioa premiatzen dira, euskararen presentziari eta garapenari dagokienez, aurrerapausoak eman ditzaten barneko errotulazioan, testu inprimatuetan eta webgunean. Osoko Bilkurak onetsia (39. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pirinioen Garapenerako II. Plana igor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (40. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Goi Ikuskaritzarekin harremanetan jar dadin, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aplikazioaren gaineko jarraipen bat egiteko. Osoko Bilkurak onetsia (40. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez dagoela ados pentsioen erreforma deitutakoarekin. Osoko Bilkurak onetsia (41. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AP-15eko emakida-hartzailearekin negoziatu eta adostu dezan A-68ko 84. kilometrotik AP-68ra, Zaragozako norabidean, sartzea bideratzen duen erreia zabaltzea. Osoko Bilkurak onetsia (41. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatearen barruan dauden Estatuaren menpeko instalazio guztien errotulazioa gaztelaniaz eta euskaraz jar dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (42. or.).
- Adierazpen politikoa, genero indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta. Osoko Bilkurak berretsia (42. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK*

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko azaroaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Convergencia de Demócratas de Navarra eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteek 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 131.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ekonomia eta Ogasun Batzordera igorri da.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**Foru lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.**

*OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DITU OSOKO ZUZENKETAK*

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko azaroaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak eta Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 131.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Ekonomia eta Ogasun Batzordera igorri da.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Mendetasun-egoera aitortzeko prozedura ezartzen duena eta Nafarroan mendetasun egoera balioesteko ekipoak taxutzeko langileen antolamendua, eginkizunak eta araubidea ezartzen dituen.**

*FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA GIZARTE GAJETAKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak Mendetasun-egoera aitortzeko prozedura ezartzen duen eta Nafarroan mendetasun egoera balioesteko ekipoak taxutzeko langileen antolamendua, eginkizunak eta araubidea ezartzen dituen Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut, Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori 2010eko ekainaren 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**IRIZPENA**

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak 2010eko azaroaren 17an eta 25ean eginiko bileretan onetsia.

**Foru Lege proposamena, Mendetasun-egoera aitortzeko prozedura ezartzen duena eta Nafarroan mendetasun-egoera balioesteko ekipoak eta organoa osatuko dituzten langileen antolamendua, eginkizunak eta araubidea ezartzen dituen.**

**ZIOEN AZALPENA**

Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun-egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen bidez, zeina onetsi baitzen Konstituzioaren 149.1.1 a) artikulua babesean, hain zuzen Espainiako

Estatuko lurralde osoan berdintasunaren printzipioa bermatzeko, arautu ziren mendetasun-egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta haiei laguntza emateko oinarrizko baldintzak, horretarako Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistema bat sortuz, administrazio publiko guztien parte-hartzearekin.

Lege-testu horrek herritarrek autonomia pertsonalerako eta mendetasun-egoeran dauden pertsonen laguntza emateko eskubide subjektibo bat egituratzen du. Eskubide hori unibertsaltasun, berdintasun eta eskuragarritasun printzipioetan oinarrituta dago, eta bera gauzatzeko mendetasun-egoeran dauden herritarrei laguntza integrala eskaintzeko eredu bat garatuko da, aitortzen baita herritarra izanen dela sistemaren onuraduna.

Horrenbestez, erronka da egoera berezi batean egoteagatik kalteberak diren pertsonen, dituzten premietan laguntza eskaintzea, hau da, uneoroko bizitzako oinarrizko ekintzak aurrera eramateko laguntza eskaintzea, autonomia pertsonal handiagoa eskuratu eta herritar gisa dituzten eskubideez guztiz baliatu ahal izateko.

Horretarako, besteak beste, aipatutako legeak, 27. artikuluan, mendetasun-egoera baloratzeko metodoa edo sistema ezartzen du, eta autonomia erkidegoen eskuetan uzten du mendetasun-egoerak baloratzeko taldeak zehaztea; izan ere, talde horien ardura izanen da mendetasun gradu edo mailari buruzko ebazpena ematea, eta pertsonak beharko lituzkeen zainketak zein diren ere adieraztea.

Gainera, Estatuko lege horren 28. artikuluko 6. idatz-zatiak ezartzen du mendetasun-egoerak balioesteko zerbitzuak, zerbitzu eta prestazioak ematea agintzea, eta prestazio ekonomikoak kudeatzea, denak ala denak lege honetan aurrei-

kusitako zerbitzuak, administrazio publikoek bideratu beharko dituztela, eta ezin izango direla erakunde pribatuen esku utzi.

Halaber, ezartzen da lurralde kontseiluak irizpide komun batzuk zehaztu beharko dituela, autonomia erkidegoetako balorazio-taldeen osakerari eta jarduteko moduari dagokienez, eta ezartzen du kasu guztietan organo horiek publikoak izanen direla.

Horretarako, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluak, 2010eko urtarrilaren 25ean, Mendetasun-egoera baloratzeko organoei eta prozedurei buruzko erabakia onetsi zuen, eta Estatuko Aldizkari Ofizialaren 2010eko martxoaren 12ko 62. zenbakian argitaratu zuen.

Erabaki horretan, balorazio-taldeen osakerari buruzko irizpide komunak eta mendetasuna baloratzeko baremoa aplikatzen duten baloratzailerei eskatu beharreko ezagupenak ezarri ziren, bai eta prozedurarako oinarriko irizpideak ere.

Bestalde, modu osagarrian, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak xede nagusi gisa ezartzen du populazioaren gizarte ongizatea lortzea Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, eta, hala, gizarte zerbitzuez baliatzeko eskubide unibertsala bermatzea. Era berean, 15/2006 Foru Legearen xedea da gizarte zerbitzuen sistema bat itxuratzea, halako moduan non bermatuko baita zerbitzuak pertsonen autonomia, duintasuna eta bizi kalitatea ziurtatuko dituzten baldintza onenetan ematen direla.

Abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legearen aplikazio-esparrua 4., 6., 7. eta 8. artikuluetan jasota dago; izan ere, artikulua horiek ezartzen dute zein diren gizarte zerbitzuen hartzaileak eta zein diren haien eskubideak eta betebeharrak.

Horrenbestez, foru lege honen xedea da, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren erabakiak kontuan hartuta, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 27. artikuluan ezarritakoa betetzea; izan ere, artikulua horretan eskumenak ematen zaizkien autonomia erkidegoei mendetasun-egoera baloratzeko organoak eta taldeak zehazteko; balorazio-organoei eta -taldeak osatu behar dituzten langileen antolamendu araubidea garatzea eta erregulatzea eta haiek, kalifikazio-eginkizunak betetzeko, berezko dituzten ahalmenak eta atribuzioak zehaztea.

Halaber, foru lege honen xedea da mendetasun-egoerak baloratzeko lanpostuei atxikitako langileen antolamendua eta araubidea erregulatzea;

halaber, lanpostu horietara sartzeko oinarriko baldintza batzuk eta lanpostu horien dedikazio-araubidea ezartzea.

## I. KAPITULUA Arau orokorrak

### 1. artikulua. Xedea.

1. Foru lege honen xedea da mendetasun-egoera aitortzeko prozedura ezarri, mendetasun-egoera baloratzeko organo eta talde eskudunen osakera eta eginkizunak zehaztu eta banakako laguntza programak prestatu, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemari dagokion esparruan, betiere Nafarroako Foru Komunitateko lurralderako.

2. Halaber, foru lege honen xedea da mendetasun-egoerak baloratzeko lanpostuei atxikitako langileen antolamendua eta araubidea erregulatzea eta lanpostu horietara sartzeko oinarriko baldintza batzuk ezartzea.

3. Foru lege honek aurreikusten ez duenerako, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutua aplikatuko da.

### 2. artikulua. Aplikazio esparrua.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak mendetasun-egoera aitortzean, mendetasun-graduren bat daukaten pertsonak Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun-egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 5. artikuluan zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte; halaber, Nafarroako edozein udaletan bizi eta erroldatuta egon beharko dute eskabidea aurkezteko unean.

## II. KAPITULUA Baloratzeko taldeak eta organoa

3. artikulua. Balorazio ekintzaren printzipio nagusiak.

1. Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun-egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean eta hura garatzeko arauetan aurreikusitako mendetasun-egoeraren gaineko balorazio-eginkizunak egiten dituzten langileak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunari atxikita egonen dira.

2. (KENDUTA).

2. Balorazioa egiten duten langileek beren izaeraren egiaztigiri bat edukiko dute, eta hura erakutsi beharko dute beren eginkizunetan jarduteko.

**4. artikulua.** Eginkizunak eta osaera.

1. Balorazio taldeak izanen dira eskatzailearen mendetasun-gradua eta maila zehaztuko dutenak.

2. Balorazio taldeek eginkizun hauek izanen ditu:

a) Aplikatzea mendetasun-gradu eta maileri buruzko balorazio-baremoa eta hiru urtez behera-ko adingabeentzako berariazko balorazio-eskala; bi horiek apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuan ezarri ziren. Izan ere, errege dekretu horren bidez mendetasunen bat duten pertsonen egoera baloratzeko baremazioa onartu zen.

b) Txostena egitea ohiko inguruneari eta irisgarritasunari buruz, horrela elementuak eskuratzeko, gradu eta mailari buruzko irizpen teknikoak egoki egiteko beharrezkoak direnak.

c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-oko organo eskudunaren aurrean formulatzea gradu eta mailari buruzko ebazpenaren proposamena, Nafarroan Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemako prestazio-eraketa eta zerbitzuetarako eskubidea aitortzeko prozedurari dagokionez.

d) Gradu eta mailari buruzko eta mendetasun-gradua eta -maila berraztertze eskabideei buruzko irizpen teknikoak ematea.

e) Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemako erabiltzaileei orientazioa eta aholkua ematea.

f) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa parte deneko auzi-prozeduretan laguntza teknikoak eta aholkua ematea, mendetasun-egoera eta haren gradu eta maila baloratzeari dagokionez.

g) Legez edo erregelamendu bidez esleitu dakizkiekeen bestelako eginkizunak.

3. Balorazio taldeak lanbide anitzekoak izanen dira, funtzionarioez osatuak eta publikoak. Eredu biopsikosozialean enkoadratuta egonen dira eta beren lanbidearen berezitasunak ekarri jardunen dute, betiere diziplina arteko ikuspegi batetik.

4. Balorazio organoa funtzionario publikoen kasuko lanpostuen zerrendan definitutako langile teknikariak osatuta egonen da. Aipatu organoa ondoko arloetan unibertsitate-titulua duen pertsona banak osatuko du: arlo sozialean, arlo psikologikoan eta arlo sanitarioan.

5. Balorazio organoak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Balorazioaren gaineko erreklamazioei buruzko txostena egitea, organo eskudunak erreklamazio horiek ebazteari begira.

b) Kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzea balorazio prozesuetan.

c) Legez edo erregelamendu bidez esleitu dakizkiekeen bestelako eginkizunak.

6. Balorazio taldeak eta balorazio organoa osatzen dituzten funtzionarioek gutxienez ere honako ezagutzak eduki beharko dituzte:

a) Balorazioa eta baremoa arautzen duen araua zorrotz ezagutzea.

b) Mendetasuna duten pertsonen taldeen ezaugarri funtzionalei buruzko behar adina ezagutza izatea, bereziki adingabeen kasuan, adimenezgaitasuneko kasuetan, buru-gaixotasunetan eta narriadura kognitibo handiena duten pertsonen kasuan.

c) Balorazio teknikak egoki erabiltzea, bereziki elkarrizketa pertsonalean; izan ere, elkarrizketa arestian aipatutako taldeen berezitasunen arabera egin beharko da.

d) Informazio iturri desberdinak erabiltzea: osasunari buruzko txostena elkarrizketa pertsonala eta zuzeneko behaketa.

e) Behar adinako praktika eta prestakuntza, lanbidean jardun aurretik harremanetan jartzeko balorazioa egiten duten langileak eta mendetasuna baloratzeko egiazko egoerak.

f) Baloratzailen kualifikaziorako behar diren edukiak garatzen dituzten espezializazioko prestakuntza ikastaroak egitea.

7. Beharrezkotzat joz gero, balorazio-taldeek langile kualifikatuen aholkua eta laguntza teknikoak edukiko dituzte –Nafarroako beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak izan beharko dira–, beren eskumenen arloan laguntza teknikoak emateko. Lankidetzan horren oinarriak tresna juridiko egokia izan beharko du eta kasuan kasu aplikatzeak diren lege xedapenen arabera.

8. Balorazio taldeak organikoki gizarte zerbitzuen arloko departamentu eskudunetan egonen dira, edo, bestela, departamentu horren menpeko erakunde publiko baten egituran.

9. (KENDUTA).

**5. artikulua.** Prestakuntza eta ebaluazioa.

1. Lanbide jardunean prestakuntza izatea, hobetzen joatea eta gaurkotuta egotea mendetasun-egoerak baloratzeko taldeak osatzen dituzten langileen eskubidea eta betebeharra dira.

2. Prestakuntza, funtsean, balorazio-eginkizunak hobeki betetzera zuzenduko da eta plangintzatik heldu diren premiei eta beren jarduerak garatzerakoan baloratzailleek topatzen dituzten premiei erantzunen diete.

3. Urtero, mendetasun-egoerari buruzko balorazioak egiten dituen organo eskudunak Prestakuntza eta Hobekuntza Plana onetsiko du. Plan horretan, izan ere, lortu beharreko helburuak jasoko dira, funtsean.

4. (KENDUTA).

4. Aldian-aldian ebaluazio bat eginen da, eta txosten bat, Nafarroako Parlamentuan aurkeztuko dena, honakoak hobetzeari buruzkoa: mendetasun-egoera baloratzeko sistema eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemako prestazioak jasotzeko eskubidea.

**6. artikulua.** Baloratzailleek betebeharrak, beren eginkizunetan dihardutela.

Mendetasun-egoera baloratzeko berezko eginkizunen jarduera gauzatzerakoan, baloratzailleek honako berariazko betebeharrak izanen dituzte:

a) Beren burua identifikatzea, berariak emandako egiaztagiriarekin, mendetasun-egoera baloratzeko jarduera guztietan.

b) Balorazio jarduera hasi aurretik, informazioa ematea eskatzaileari, edo kasua bada bere legezko ordezkariari, jardueraren edukari buruz eta garatu beharreko probei buruz, bai eta balorazioaren garapena dela-eta dauzkaten eskubideei buruz ere.

c) Beti ahal den errespetu eta begiramen handienaz jokatzeko, eta bereziki babestea baloratu beharreko pertsonen intimitatea.

d) Bere karguarengatik, eginkizunarengatik eta jarduerarengatik ezagutzen dituen gaiak direla eta sekretua eta isilekotasun profesionala betetzea.

e) Pertsonen intimitatean eragina duten edo izan dezaketen datu pertsonalei buruzko konfidentzialtasuna gordetzea.

f) Beren jardunean, objektibotasunez, gardentasunez eta inpartzialtasunez jokatzeko.

g) Gizarte zerbitzuen eta zerbitzu eta entitate publiko eta pribatu hartzaillei eta arloko profesionalen legez aitortutako eskubideetatik erator litekeen beste edozein eskubide edo betebeharrak.

**7. artikulua.** Esku ez hartzea.

Langile baloratzailleek ez dute esku hartuko balorazio prozedura batean –eta beren agintari hierarkikoari jakinaraziko diote hori–, administrazio

publikoen zerbitzuko langileen jarduerari buruz arau indardunetan esku ez hartzeko aurreikusitako kasuren bat gertatzen denean.

**8. artikulua.** Lanpostuak eskuratzea.

1. Mendetasun-egoera baloratzeko lanpostuetara sartzeko prozedura deialdi publiko bidez eginen da eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuan, oro har, eta hura garatzeko arauetan ezarritakoaren arabera eginen da, bai lanpostuak betetzeari dagokionez, bai funtzio publikoan sartzeari dagokionez ere.

2. Mendetasun-egoera baloratzeko lanpostu batean sartzeko edo balorazio organoko lanpostu batean, dela lanpostuak betetzeko prozedura baten bitartez, dela lanpostu horietan sartzeko prozeduraren bitartez, hurrengo titulazio hauetako bat eduki beharko da: medikuntza, psikologia, terapia okupazionala, erizaintza, fisioterapia edo gizarte-lana. Halaber, honako baldintzak bete beharko dira: ibilgailuak gidatzeko B motako baimena edo baliokidea izatea, eta mendetasuna duten pertsona-taldeen ezaugarri funtzionalen gaineko ezagutzari buruz eta mendetasun-egoera baloratzeari buruz eta gizarte zerbitzuei buruz ezarritako probak gainditzea.

**9. artikulua.** (KENDUTA).

### III. KAPITULUA

#### Mendetasun-egoera aitortzeko prozedura eta sistemaren prestazioak jasotzeko eskubidea

**9. artikulua.** Prozeduraren hasiera.

1. Mendetasun-egoera aitortzeko eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko prestazioak jasotzeko eskubidea mendetasun-graduren bat izan dezakeen pertsona baten ekimenez edo hura ordezkatzeko duen beste pertsona baten ekimenez hasiko da. Haren izapidetzea Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean ezarritakoaren arabera eginen da, betiere foru lege honetan ezartzen diren berezitasunekin.

2. (KENDUTA).

2. Egoitzetan, eguneko zentroetan, lanerako prestatzeko zentroetan, errehabilitazio psikosozialko zentroetan edo Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemako edo Gizarte Zerbitzuen Zorroko zerbitzuen katalogoko beste edozein zerbitzutan laguntza hartzen duten pertsonen kasuan –dela Nafarroako Foru Komunitateko sare publikoan, dela itunduan–, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak erraztasunak

eman ahalko ditu eta sustatu ahalko du mendetasun-egoera aitordadin, interesdunaren eskubideak babeste aldera.

Aurreko idatz zatian aipatutako pertsonen balorazioak, edozein dela ere haien mendetasunaren gradua eta maila, ez du inongo eraginik izanen administrazio-ebazpenez jada, foru lege honetan araututako prozedurari hasiera eman aurretik, aitortuta izan ditzaketen eskubideetan.

#### **10. artikulua.** Eskaerak

Mendetasun-egoerari buruzko aitortenaren eskaera eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioak jasotzeko eskubidearen aitortenaren eskaera egiten dira erregelamenduz ezarritako moduan eta baldintzekin, eta Administrazioak ez du exijituko bere bulegoetan duen dokumenturik.

#### **11. artikulua.** Eskaerak aurkezteko tokia.

Eskaerak aurkeztu ahalko dira prozedura administratiboari buruzko araudian ezarritako edozein erregistrotan, eta espedientea izapidetuko da kasuko oinarrizko gizarte zerbitzuaren bidez nahiz auzoko unitatearen bidez, edo gizarte zerbitzuen arloan eskuduna den departamentuaren bidez edo osasun etxe baten nahiz osasun mentaleko zentro baten bidez.

#### **12. artikulua.** Zuzenketa.

Hasteko eskaerak ez baditu biltzen exijitzen diren baldintza guztiak edo foru lege honetako 11. artikuluan zehaztutako dokumentazio aurkezten ez bada, organo eskudunak interesdunari eskatuko dio hamar eguneko epean akatsa zuzen dezan edo behar diren agiriak aurkez ditzan. Interesdunak hori egiten ez badu, organo eskudunak eskaera ezetsi egiten du, eta behar den ebazpena emanen du legez ezarritako moduan.

#### **13. artikulua.** Txosten soziala.

Mendetasunari arreta eskaintzeko sistemaren prestazio bat eskuratzeko prozeduran, gizarte txosten bat eskatuko zaie interesduna bizi den udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuei, osasun etxeari edo osasun mentaleko zentroari. Txostenaren helburua izanen da eskatzailearen egoera soziala eta familiarra baloratzea; gainera, zerbitzu edo prestazio egokiena emateko orientabideak emanen ditu.

Kasuko pertsona Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldeko administrazio publiko baten titulartasuneko baliabide baten erabiltzailea baldin bada, zentroko zuzendaritzak eta gizarte langileak baliabidea kokatuta dagoen udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuekin batera egiten dute lan eskatzailearen txosten soziala egiteko.

#### **14. artikulua.** Mendetasun-egoeraren balorazioa.

1. Behin eskaerak jaso eta erregistratu ondoren, mendetasunaren arloan eskuduna den unitate administratiboak eskatzaileari jakinaraziko dio zein egunetan eta zein ordutan joanen diren haren etxebizitzara, mendetasuna baloratzeko baremoa aplikatzeko, edo hiru urtetik beherako kasuan, berariazko baloraziorako eskala aplikatzeko.

2. Aparteko kasuetan, justifikatutako inguruabar pertsonal eta familiarrengatik eskatzailearen balorazioa bere etxebizitzan egiterik ez dagoenean, unitate administratibo eskudunak balorazioa beste toki batean egitea erabaki ahalko du.

3. Mendetasun-egoerari buruzko balorazioa egiteko, kontuan hartuko da mendetasuna baloratzeko baremoa edo, hiru urtetik beherako kasuan, berariazko balorazioari buruzko eskala. Gainera, interesdunari buruzko hurrengo txostenak hartuko dira kontuan: osasun txostena eta bizi den inguruneari buruzko txostena; halaber, kontuan hartuko dira, kasua bada, agindu zaizkion laguntza teknikoak, ortesiak eta protesiak.

4. Aparteko kasuetan, balorazio taldeak entitate desberdinei eskatu ahalko zaizkie beharrezkotzat jotzen dituen txosten osagarriak edo argibide-txostenak, espedientean dauden aurrekarien edukia edo interesdunaren inguruabar bereziak direla eta hori gomendagarritzat jotzen denean.

5. Mendetasunaren arloan eskuduna den unitate administratiboaren aurrean behar bezala kreditatutako larrialdi kasuetan, unitate administratibo horren arduradunak behar diren tresnak ezarriko ditu kasuko balorazio taldeak eskatzailea lehentasunez baloratzeko.

6. Balorazioa ezinezkoa denean interesdunari egoztekoak diren arrazoiak direla eta, organo eskudunak agiri bidezko behar den komunikazioa egiten du, eta berariaz ohartaraziko du ezen, hiru hilabete iragan ondoren, prozedura iraungitzat joko dela. Epe hori errekerimendua egin zaion partikularrak behar diren jarduerak egin gabe iraganez gero, organo eskudunak erabakiko du jarduerak artxibatzea, eta interesdunari jakinaraziko dio hori.

7. Idatz-zati berria. Mendetasun-egoerari buruzko aitortenaren eskabidea ebazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izanen da, eskabidea sartzan denetik kontaktzen hasita.

#### **15. artikulua.** Banakako laguntza programaren prestaketa.

1. Behin interesdunaren mendetasun-egoerari buruzko balorazioa amaitu ondoren, balorazio



horren graduak eta mailak indarra baldin badute abenduaren 14ko 39/2006 Legeko amaierako xedapenetako lehenengoan edo Gizarte Zerbitzuen Zorroan ezarritakoaren arabera, arestian aipatutako 39/2006 Legeko 29. artikuluan aipatzen den banakako laguntza programa prestatuko da.

Programa hori unitate administratibo eskudunaren bitartez gauzatuko da edo, kasua bada eta organo eskudunak baimena eman ondoren, hark eskuordetutako entitate publikoak eginen du.

2. Banakako laguntza programa egiterakoan, udal oinarritzko gizarte zerbitzuen sare publikoko teknikariek igorritako txostenari erreparatuko zaio, foru lege honetako 13. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Halaber, interesdunak edo banakako laguntza programa prestatzeko behar den informazioa ematen duten beste entitate publiko batzuek aurkeztutako beste txosten tekniko batzuk hartu ahalko dira kontuan.

3. Programa horretan, interesdunaren gradurako eta mailarako 39/2006 Legean edo Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasotako zerbitzu eta prestazioetatik, eskatzailearen premiei hobekien egokitzen zaizkien esku hartzeko moduak proposatuko dira, betiere prestazio ekonomikoetarako ezarritako berariazko baldintzak betetzen badira.

4. Banakako laguntza programak ezartzen baldin badu interesdunaren premietarako esku hartzeko modurik egokiena dela 39/2006 Legeko 15. artikuluan zehaztutako zerbitzu bat eta zerbitzu hori ez bazaio ematen ari, banakako laguntza programaren eraginkortasuna zerbitzua egiaz ematen hasten den dataren arabera izanen da. Pertsona interesdunari proposaturiko zerbitzua eskuratzeko bidezkoa ez bada, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemari edo Gizarte Zerbitzuen Zorroan aurreikusitako beste zerbitzu edo prestazio bat eskainiko zaio.

5. 39/2006 Legeko 29.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz, onuradunak eta, bidezkoa bada, haren familiak edo hura ordezkatzeko duen entitateak, foru lege honetako 16. artikuluan araututako entzunaldiaren bitartez hartuko du parte banakako laguntza programan proposaturiko aukerak hautatzerakoan, betiere Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemari edo Nafarroako Gizarte Zerbitzuen zorroko zerbitzu eta prestazioen sarean eskuragarri dagoenaren arabera.

6. (KENDUTA).

6. Idatz-zati berria. Mendetasun-egoera baldin bada gaixotasun mentala diagnostikatu izanaren

ondorio, Nafarroako Foru Komunitateko Plan Soziosanitarioa izanen da konponbide egokiena emanen diena mendetasun-egoeran gaixotasun horren ondorioz dauden pertsonen.

**16. artikulua.** Entzunaldiaren izapidea.

1. Banakako Laguntza Programaren proposamena eginda, ardura duen organoak proposamenaren berri emanen die interesduna bizi den udaleko oinarritzko gizarte zerbitzuei, osasun etxeari edo buruko osasun etxeari. Proposamen horrek orobat jasoko ditu alde aurretik eginiko balorazio teknikoak ezartzen duen mendetasun gradua eta maila.

2. Parte hartzeko eta, kasua bada, hautatzeko aukera emanen zaie interesdunari eta, bidezkoa bada, haren familiari edo haren ordezkari diren tutoretza-entitateei. Betiere, interesdunari adieraziko zaio bizi den udaleko oinarritzko gizarte zerbitzuei, osasun etxeari edo buruko osasun etxeari kontsulta egin behar diela, haren mendetasun-egoeraren arabera eta egoera soziofamiliarren arabera egokiena den erabakia hartzeko.

3. Baldin eta Banakako Laguntza Programaren proposamenean gomendatzen bada egoitza batean sartzeko eta espedienteetan jasota dauden txostenetan egiaztatzen bada ezkontidearekin batera sartzeko borondate argia dagoela, egoera hori aintzat hartu ahalko da, proposamen horretan ohar gisa jasota, nahiz eta ezkontideak ez izan onartua mendetasun-egoera.

4. (KENDUTA).

5. (KENDUTA).

**17. artikulua.** Mendetasun-egoerari buruzko aitortpena eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioak jasotzeko eskubidearen aitortpena egiteko proposamena.

1. Behin Banakako Laguntza Programa prestatuta, unitate administratiboak ebazpen proposamena aurkeztuko dio organo eskudunari, zeinak zehaztu egiten baitu zer zerbitzu eta prestazio emanen zaizkion pertsona eskatzaileari.

2. Proposamen horretan ezarriko da, bidezkoa denean eta kasuko inguruabarren arabera, gehienez ere zer epetan egin beharko den, baldin eta egin behar bada, erabakitako graduaren eta mailaren lehen berrikuspena.

**18. artikulua.** Mendetasun-egoerari buruzko aitortpena eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioak jasotzeko eskubidearen aitortpena.

1. Mendetasunaren arloko administrazio organo eskudunak kasuko ebazpenak emanen ditu; haien bidez ondokoak ezarriko ditu:

a) Eskatzailearen mendetasun gradua eta maila, zehaztua eskubiderik duen mendetasun prestazioak jasotzeko, dela 39/2006 Legeko azken xedapenetan lehenak ezarritako egutegiari dela Gizarte Zerbitzuen Zorroan ezarritakoari jarraikiz. Orobat ezarriko da, bidezkoa denean eta kasuko inguruabarren arabera, gehienez ere zer epetan egin beharko den, baldin eta egin behar bada, erabakitako graduaren eta mailaren lehen berrikuspena.

b) Banakako Laguntza Programa, zeinetan jasoko baita 39/2006 Legean ezarritako zerbitzuetarik eta prestazioetarik zein diren egokienak eskatzailearentzako laguntza ziurtatzeko. Betiere, foru lege horretako 15.3 artikuluan ezarritakoa izanen da gutxienekoa.

2. Prestazioa edo zerbitzua aitortzen duen administrazio ebazpena gehienez ere sei hilabeteke epean eman eta jakinaraziko da. Epe hori eskabidea aurkezten den egunean hasiko da zenbaitzen.

Horren ondorioetarako, espedientea geldiarazita egon den epea ez da aintzat hartuko eskatzaileari egotzi zaizkion arrazoiengatik izan bada.

3. Salbuespenez, giza baliabideak nahiz baliabide materialak agortuta, organo eskudunak prozedura ebazteko gehieneko epea luzatu ahalko du, kontuan hartuta aurkeztutako eskabide kopurua eta pertsona ukituen kopurua zein den edo epea luzatzeko administrazio ebazpenean espresuki zehazten diren beste inguruabar batzuk.

4. Mendetasun-egoerari buruzko aitortpenak Espainiako Estatuko lurralde osoan izanen du balioa.

**19. artikulua.** Banakako Laguntza Programaren eraginkortasuna.

1. Mendetasun-egoerari buruzko aitortpena eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioak jasotzeko eskubidearen aitortpenean jasota ageriko da zein egunetatik hasita izanen diren eraginkorrak Banakako Laguntza Programan jasotako zerbitzuak eta prestazioak.

2. (KENDUTA).

2. Banakako Laguntza Programan egoitzako laguntza zerbitzu bat hartzea jasotzen baldin bada, Mendetasun-egoerari buruzko aitortpenaren eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioak jasotzeko

eskubidearen aitortpenaren kopia bat igorriko zaio egoitzako zuzendariari, programa horren jarraipena egin dezaten errazte aldera.

**20. artikulua.** Baliabideak.

Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemako prestazioetarako eta zerbitzuetarako eskubidea aitortzen duen administrazio-ebazpenaren aurkako gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko da, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26eko 30/1992 Legean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz.

**21. artikulua.** Mendetasun-egoera eta sistema-ren prestazioak berraztertzea.

1. Aitortutako mendetasun gradua eta maila eta Banakako Laguntza Programa berraztertu ahalko dira, banaka nahiz biak batera, ondoko artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

2. Mendetasun-egoeraren gradua eta maila, Banakako Laguntza Programa, edo horiek biak, berraztertzeko prozedurak ebazteko epea sei hilekoa izanen da.

**22. artikulua.** Mendetasun-egoera berraztertzea.

1. Mendetasun-egoeraren gradua eta maila abenduaren 14ko 39/2006 Legeko 30. artikuluan ezarritako zioengatik berraztertu ahalko da; prozedura ofizios abiarazi ahalko du administrazio-organoko eskudunak, bai eta interesdunak edo haren legezko ordezkariak eskatuta ere.

2. Berraztertzeko eskabidearekin batera, egoera aldatu izana behar bezala kreditatzen duten txosten guztiak –osasun faktoreak, okerragotu edo hobetu izanari buruzkoak– aurkeztu beharko ditu interesdunak, aldaketa behar bezala egiaztatze aldera. Mendetasun-egoeraren graduaren eta mailaren berrazterketa ukatuko zaie aldaketa horiek kreditatzen ez dituzten interesdunei.

**23. artikulua.** Banakako Laguntza Programaren berrazterketa.

1. Banakako Laguntza Programa berraztertu ahalko da:

a) Interesdunak edo haren legezko ordezkariak eskatuta.

b) Ofizios programa onetsi zuen administrazio organoak.

2. Nolanahi ere, beste erkidego batetik etortzeagatik bizilekua aldatzen baldin bada, Banakako

Laguntza Programa berraztertu ahalko da, bai alde batek eskatuta bai ofizios administrazio organo eskudunak.

3. Banakako Laguntza Programan aitortutako prestazioak ondoko kasuetan aldatu ahalko dira:

a) Mendetasun gradua edo maila edo onuradunaren egoera pertsonala aldatzeagatik.

b) Gradua edo maila aitortzeko ezarritako betekizunak edo baldintzak aldatzeagatik.

c) Onuradunak 39/2006 Legean ezarritako eginbeharrak ez betetzeagatik.

d) Prestazio edo zerbitzu berriak sortzeagatik, horien intentsitatea areagotzeagatik edo zerbitzuaren nahiz sistemaren sareko egoitzaren eskuragarritasunarengatik, baldin eta aitortutako prestazioa zerbitzuari atxikitako prestazio ekonomia bada.

4. Berraztertzeko prozedurari aplikatzekoa izanen da, bidezkoa denean, Banakako Laguntza Programa prestatze aldera foru lege honetan ezarritakoa.

5. (KENDUTA).

5. Banakako Laguntza Programaren berrazterketa eskatzeko epea lehengo Programa egin zenetik urtebetekoa izanen da gutxienez, baldin eta aldaketa interesdunak eskatuta egiten bada. Epe hori ez da aplikatuko baldin eta osasun nahiz gizarte arloko txostenen arabera justifikatuta badago Banakako Laguntza Programa behar baino lehenago berraztertzeko beharra.

**24. artikulua.** Prestaziorako eskubidea azkentzea.

1. Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemako prestazioak jasotzeko eskubidea azkenduko da onuradunak ondoko egoeretakoren batean dagoenean:

a) Bertan bizitzeari uztea edo bizilekua Espainiako lurraldetik kanpora eramatea urtebetetik gora.

b) Prestazio bakoitza jasotzeko eskubidea aitortze aldera eskatzen diren baldintza edo betekizun berariazkoetarik bat ez betetzea.

c) Prestazio edo laguntza bateraezin bat jasotzea.

d) Hiltzea. Prestazio sortu baina ordaindu gabetik baldin badago, ordaindu eginen da alderdi legitimoak eskatuz gero. Heriotza gertatu den hileko azken egunera artekoa ordainduko da.

e) Mendetasun gradua eta maila aldatzea, aldaketa horrek prestazioa edo zerbitzua jasotzeko eskubidea galtzea baldin badakar.

2. Familiaren esparruko zainketetarako eta zaintzaile ez-profesionaleri laguntzeko prestazio ekonomikoaren titularrak ez du prestazio hori jasotzeko eskubidea galduko, egoitza-laguntzako zerbitzu batean aldi baterako egoteagatik zaintzaile ez-profesionalaren prestakuntza, atsedean edo gaitxotasun aldi bat dela-eta, non eta aldi hori ez den urtean 3 hilabetetik gorakoa.

3. (KENDUTA).

**25. artikulua.** Berrazterketen eta azkentzeen eragingarritasuna.

1. Berrazterketak aitortu den zerbitzuaren intentsitatea edo edukia aldatzea nahiz zerbitzua azkentzea baldin badakar, aldaketa edo azkentze horren eragingarritasuna, oro har, hori ezartzen duen ebazpena ematen den egunaren biharamunen ezarriko da.

2. Aldaketak prestazio ekonomiko baten kopuruari eragiten baldin badio edo hura azkentzea baldin badakar, aldaketa edo azkentzea ekarri duten inguruabarrak aldatu ondoko hilabeteko lehen egunetik aitzina izanen ditu ondorioak.

#### IV. KAPITULUA

##### Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren eragingarritasuna eta zehatzeko eskumena

**26. artikulua.** Prestazio ekonomikoen eta zerbitzuen jarraipena.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, kasuan kasuko organo eskudunen bidez, esaterako ikuskaritza-zerbitzuen edo oinarrizko gizarte zerbitzuen bidea, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistematik heldu diren funts publikoak, prestazioak, zerbitzuak nahiz onura guztiak behar bezala erabili eta aplikatuko direla zainduko du.

2. Mendetasun-egoeran dagoen pertsona bizi den udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuek bere lurraldean Banakako Laguntza Programa behar bezala aplikatzearen eta, kasua bada, onuradunaren egoerari egokitzearen jarraipena egiten lagunduko dute.

3. Pertsona hori Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldeko administrazio publikoaren titulartasuneko baliabide baten erabilzailea bada eta baliabide hori Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren bitartez jaso badu, zentroko zuzendariak eta gizarte

te-langileek ere lagunduko dute zerbitzuaren onuradunari Banakako Laguntza Programa zuzen aplikatzearen jarraipena egiten.

4. Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren prestazioen onuradun oro eta, kasua bada, haien ordezkariak, jakinarazi egin beharko dute aitortuak dituzten prestazioak jasotzeko eskubideari, edukiari edo intentsitateari eragiten ahal dieten inguruabarretan gertatzen den aldaketa oro, aldaketa gertatu eta hogeita hamar eguneko epean.

Betebehar hori bete ezean, baldin eta horren ondorioz jaso behar ez ziren zenbatekoak jaso badira edo zerbitzuen kostuan behar adinako parte hartzerik izan ez bada, onuradunak zenbateko horiek itzuli beharko ditu edo kasuko aldea ordaindu behar izanen du.

## 28. artikulua. (KENDUTA).

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Aitortzea zein egoeratan den beharrezkoa beste pertsona baten laguntza.

1. Ezgaitasunaren inguruko prozedura, adierazpen eta kalifikazioari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuko 2. eranskineko baremoari jarraikiz beste pertsona baten laguntza beharrezkoa dutela aitortu zaien pertsonen mendetasun-egoera aitortzeari buruzko ebazpena kasuan kasuko mendetasun gradua eta maila aitortzera mugatuko da, baremo horretan emandako puntuazio zehatzaren arabera, Mendetasunen bat duten pertsonen egoera baloratzeko baremoa onartu zuen apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuko lehen xedapen gehigarriko bigarren idatzatiaz jasotako taularekin bat.

Edozein kasutan ere, baldin eta interesdunak, haren familiartekoeak edo haren ordezkari diren tutoretza-entitateek hala eskatzen badute, mendetasuna baloratzeko kasuko baremoa edo, kasua bada, berariazko balorazio-eskala aplikatuta baloratu ahalko da.

2. Baldin eta hasieran aitortutako gradua eta maila baino txikiagoa ezartzen bada balorazio horren bidez, horri eutsiko zaio, mendetasun-egoeran dagoen pertsonak eskubiderik gal ez dezan eta hari kalterik ez eragiteko.

3. Baldin eta balorazioaren ondorioz hasieran aitortutako gradua eta maila baino handiagoa ezartzen bada, aldatu eginen da kasuko administrazio-ebazpenaren bidez, balorazioaren bidez lortutako emaitza horretara egokitzeko.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Nafarroako Foru Komunitateko sare publikoko edo hitzartuko egoitzetan dauden pertsonen mendetasun-egoera aitortzea.

Foru lege hau indarrean sartzen den unean adinagatik nahiz ezgaitasun bat izateagatik sare publikoko egoitzetan edo zerbitzuetan dauden pertsonen haien mendetasun-egoeraren balorazioa eskatzen ahalko dute, baldin eta egoitza edo zerbitzu horietan sartu badira ezgaitasun graduari erreparatuta edo haien osasun-egoeraren balorazioari, egoera soziofamiliarri edo mendetasun-egoerari erreparatuta, zaharrei eta ezgaitasunen bat dutenei laguntzeko egoitzetako plazak esleitzeke arauari jarraikiz.

Pertsona horiei dagokien Banakako Laguntza Programak foru lege hau indarrean sartzen den unean jasotzen dituzten zerbitzuak jasoko ditu, non eta ez diren kontrakoa justifikatzen duten arrazoi zehatzak gertatzen, eta hori ez da eragozpen izanen etorkizunean berraztertzeke.

## Hirugarren xedapen gehigarria. (KENDUTA).

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Beste autonomia erkidego edo hiri batzuetan mendetasun-egoerak aitortze aldera abiarazitako prozedurak.

Beste autonomia erkidego edo hiri batzuetan mendetasun-egoerak aitortze aldera abiarazitako prozedurak dirauen bitartean bizilekua Nafarroako Foru Komunitateko lurraldera aldatzen duten pertsonen espedienteetako dokumentazioak eta jarduketek Nafarroako Foru Komunitatean ere balio ahalko dute, jatorriko administrazioan espedientea aldeztu aurretik eskatuta. Eskabide horrek aurrera egin dezan, interesdunak, datu pertsonalen babesari buruzko araudi indardunarekin bat, espresuki eman beharko du horretarako baimena.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna.

Foru lege honetako gaztelaniazko testuan, kargu-izenak edo lanpostuak aipatzeko genero gramatikal maskulinoko substantiboak erabiltzen diren kasuetan ulertuko da ekonomia hutsez aipatzen direla horrela, eta modu orokorrean aipatu nahi direla postu horiek, gizona betetzen dituztenerako nahiz emakumeek betetzen dituztenerako, eragin juridiko berdinekin.

**Bosgarren xedapen gehigarria.** Bitarteko elektronikoen bidezko prozedurak.

Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu, herritarrek modu elektronikoa egin ahal izan ditzaten, gehienez ere urtebeteko epean, foru lege honetan aipatzen diren prozedurak, kon-

tuan hartuta betiere Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan Administrazio Elektronikoa ezartzeko apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legean aurreikusitakoa.

Baliabide elektronikoen bidezko prozedurek ez dituzte ohiko baliabideen bidezko prozedurak desagerraraziko, behar diren baliabide eta ekipu teknologikoak ez dituztenak babeste aldera eta herritarren borondatezkotasunaren printzipioa ziurtatze aldera.

**Lehen xedapen iragankorra.** Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko prestazioak aitortzea I. gradua –mendetasun moderatua– onartu zaien pertsoneri.

Balorazio-taldeak eginiko balorazio teknikoa egin ondotik eskatzaileari I. gradua –mendetasun moderatua– aitortzen baldin bazaio, aitorten hori egiten duen ebazpenak mendetasun-egoeraren gradua eta maila soilik ezarriko ditu. I. gradu horretako eta horri dagozkion mailetako prestazioak eraginkorrak izan behar diren egunaren aurreko hiru hilabeteko epean egingen da Banakako Laguntza Programa, 39/2006 Legeko azken xedapenetan lehenak ezarritako egutegiarekin bat.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Foru lege hau baino lehenagoko eskabideen izapidetzea.

Izapidetzeko unean aplikatzekoa zen araudiari jarraituz izapidetuko dira foru lege hau indarrean sartu aurretik aurkeztutako eskabideak; entzunaldiaren izapidea, aldiz, foru lege honetako 16. artikuluan ezarritakoari jarraituz egingen da. Onesten diren ebazpenen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahalko da, foru lege honetan ezarritakoari jarraituz.

**Hirugarren xedapen iragankorra.** Sartzeko lehentasuna.

1. Mendetasun-egoeran dauden pertsonen zerbitzuak eta prestazioak jasotzeko lehentasuna izanen dute, bai 39/2006 Legeko azken xedapenetan lehenak ezarritako egutegiari jarraituz bai Gizarte Zerbitzuen Zorroan ezarritakoari jarraituz, Nafarroako Foru Komunitateko sare publikoko edo hitzartuko egoitzetan –ezgaitasun intelektuala dutenei laguntzeko egoitzetan– sartzeko itxaron-zerrendan sartuta dauden pertsonen aldean, zaharrentzako egoitzetan sartzeari begira.

2. Orobat, mendetasun-egoeran dauden pertsonen Gizarte Zerbitzuen Zorroko gainontzeko prestazioak –autonomia sustatzeko eta mendetasun-egoeran daudenei laguntza ematekoak– Nafarroako Foru Komunitateko sare publikoan edo hitzartuan jasotzeko lehentasuna izanen dute, bai 39/2006 Legeko azken xedapenetan lehenak ezarritako egutegiari jarraituz bai Gizarte Zerbitzuen Zorroan ezarritakoari jarraituz, itxaron-zerrendan sartuta dauden pertsonen aldean.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

Indargabeturik geratzen dira foru lege honetan ezarritakoaren aurkakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak eta, bereziki, Mendekotasuna baloratu eta aitortzeko eta Mendekotasuna duten pertsonendako Banakakoaren Arreta Programa prestatzeko prozedurak ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 6/2008 Foru Dekretua, 2009ko otsailaren 9ko 17. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

**Azken xedapenetan lehenak.** Foru legea garatzeko eta betearazteko araudia.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio behar adina xedapen eman ditzan foru lege hau garatu eta betearazteko.

**Azken xedapenetan bigarrena (berria).**

Foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak, galdetuta alde aurretik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun mentaleko espezialisten zerbitzuei, Nafarroako Mendetasun Agentziari eta gaixotasun mentalak dituzten pertsonen elkarteei, eta haiekin guztiekin lankidetzan, Parlamentura txosten bat igorriko du jasoko duena zein den modu egokiena artatzeko gaixotasun mental larria diagnostikatuta bai baina horren aitortzenik ez duten pertsonak; ez aitortzenik abenduaren 14ko 39/2006 Legean, ezta gizarte-zerbitzuen zorroan ere.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.



## **Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko azaroaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duen Foru Legea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2010eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena.**

#### ZIOEN AZALPENEA

Honako foru lege hau prestatu da odol-ematearen alorreko eta zelulen nahiz ehunen lorpen, manipulazio, egiaztapen, preserbazio, biltegitratze, banatze eta inplantatzearen alorreko legedi indarduna egokitze aldera, horretarako oinarriturik Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa onetsi zenetik Nafarroari osasun-alorrean dagozkion eskumenetan, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legean, zeinak VI. tituluan garatzen baitu Osasunbideko zuzendaritza-, kudeaketa- eta partaidetza-organo zentralen arauketa, eta Nafarroako Gobernuari eta bere Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legean nahiz Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean, zeinek aldaketak ezartzen baitituzte Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen administrazio-antolamenduaren arauketan.

Foru lege honen xedea da odoletik eta giza ehunetatik eratorritako baliabideei dagozkien administrazio- eta kudeaketa-egiturak modernizatu, eguneratu eta indarreko legediari egokitzea, eta azken bateko jomugatzat du Nafarroako herriarrentzako osasun-prestazioen kalitatea hobea

tzeara, produktu horien hornidura osasun-kalitatearen eta -segurtasunaren aldetik aproposak diren baldintzetan eskuratzen dela ziurtatuz eta haien eskuragarritasunaren kudeaketa optimizatuz, unean uneko emateen arabera.

Ezinbesteko premia da organismo publiko bat sortzea zeinak Foru Komunitaterako zentralizatu eta esleituta edukiko baititu odol-, zelula- eta ehun-bankuaren eginkizunak, eta bermatuko baitu indarreko legedi konplexu eta zorrotza betetzea, produktuen kalitatea ziurtatuz haien lorpenetik erabilera klinikora arte, bai eta produktu horien segurtasuna ere, betiere babes gorena emanez artaturiko pertsoneri.

Transfusio-sarea ehunen alorrera hedatzeak ahalbidetu egiten du haiei aplikatzea segurtasunari eta kalitateari dagokienez eskatzen den exijentzia-maila, odolaren kasuan jadanik ezarrita dagoenaren antzekoa, eta halaber ahalbidetzen du zelulen eta ehunen alorreko baliabideen kudeaketaren eta eskuragarritasunaren optimizazioa bermatzea.

Azken batean, osasun-laguntzaren zerbitzuan zelulen eta giza ehunen erabilerak duen garrantziak, haiek osasun publikoan duten garrantziak eta haien administrazio-kudeaketak eta prozesatzeak (azken horiek guztiz konparagarriak dira odoletik eratorriak diren produktuekin) arrazoizkotzat joarazten dute bi zerbitzu horiek elkartzea, bukaerako produktuak estandarizatzeko eta dauden baliabideak optimizatzeko.

Baliabide eskasak direnez, soilik giza jatorrikoak eta emate altruistatik datozenak, ez da ezohikoa izaten desdoikuntzak egotea odolaren, zelulen eta giza ehunen eskaera handiaren eta horien eskuragarritasunaren artean; horrela gertatzen da ezen haien kudeaketarik onena bateragarria dela, bakar-bakarrik, administrazio publikoari eta haren menpeko organismoei osasunaren gainean dagoen zaintza orokorraren bermearrekin.

Europar Batasuneko herrialde garatu guztietan produktu horien kudeaketa integralaren ardura utzi da monografikoki horretan diharduten osasun-zentroen eskuetan. Zentro horiek erantzuten diete lurralde jakin bateko osasun-zentro publiko eta pribatu guztiek odol, zelula eta giza ehunei dagokienez dauzkaten beharriaz, emate altruisten sus-

tapenera bideraturiko baliabideen efizientzia areagotze aldera, eta autohornikuntza, odol-, zelula- eta ehun-erreserba eskuragarrien erabileraren optimizazioa nahiz prozesu guztian zeharreko segurtasun-berme gorenak lortze aldera.

Europar Batasuneko herrialdeak jarduten direneko lege-esparrua definituta dago, transfusioaren eta ehunen kasuan, nazioz gaindiko arauen bitartez, ardatz gisa dutenak erantzun bat ematea, alde batetik, biztanleei, osasun-hobetzeari eta eritasuna tratatzeari buruz espero dituzten zerbitzuak direla-eta, eta bestetik, legediaren eta gizartearen exigentzia bati; hots, emate-ekintza taxutzea ekintza boluntario eta altruista gisa, sustatu eta babestu beharrekoa.

Horregatik, foru lege honen bidez eratzen da "Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua" deituriko entitate publikoa.

Nafarroako Odol eta Giza Ehunen Banku berriak, bere eraketan, bereganatzen du Osasunbidea erakunde autonomoari atxikitako Nafarroako Odol Transfusioen Zentroa zenaren egitura.

Odolaren eta giza ehunen banku bateratu eta zentralizatu sortuz lortu nahi da transfusio, zelula eta giza ehunei dagokienez dauden beharriaren asetzea optimizatzea, emate altruista sustatzeko kanpainak koordinatzea, eskueran dauden giza baliabideak eta baliabide materialak kontzentratzea eta prozesu osoaren gaineko kontrola eskuratzea. Horren guztiaren azken helburuak dira autohornikuntza erdiestea eta kalitatea ziurtatzea, odola, zelulak eta ehunak lortzen direnetik, bai eta prozesatzen, egiaztatzen, preserbatzen eta banatzen diren bitartean ere, harik eta azkenean txertatzen edo haien transfusioa egiten den arte. Jarduera-zentralizazio horrek posible eginen luke prestakuntza- eta ikerketa-jarduera berriei ekitea, bete beharreko oinarritzko arauak ezartzen duten bezala.

Foru lege honek, halaber, xede du organo-erazketa eta -transplantei buruzko urriaren 27ko 30/1979 Legea aplikatzea, bai eta abenduaren 30eko 2070/1999 Errege Dekretua ere, zeinaren bidez arautzen baitira giza organoen eskuratze eta erabilera klinikoko jarduerak eta organo eta ehunen emate eta transplantearen alorreko lurraldeko koordinazioa. Horietara egokitzeko, eta aurki argitaratuko diren Europako gidalerro berrien zain, osasun-agintariak behartuta daude araudi horri jarraituz jardutera, eta, horretarako, foru lege honek arautzen duen Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren egitura erabiliko dute, transplante-koordinazioaren bidez, zeinak "Emate eta Transplanteen Koordinazioa" izena hartuko baitu.

Odol-emateari buruzko gaur egungo legedia.

Odolaren eta bere osagaien kalitate-maila altua, Estatu kide guztietan baliokidea, bermatzen laguntzeko, bai eta herritarrek odol-transfusioan duten konfiantza indartzen laguntzeko ere, Europako Parlamentuak 2002/98/EE Zuzentaraua onetsi zuen, zeinaren bidez kalitate- eta segurtasun-arauak ezartzen baitira odolaren eta haren osagaien erazketa, egiaztapen, tratamendu, biltegitratze eta banaketarako.

Batzordearen 2004/33/EE Zuzentarauak, 2004ko martxoaren 22koak, 2002/98/EE Zuzentaraua aplikatzen du, odolaren eta odol-osagaien zenbait baldintza teknikori dagokienez.

2005eko irailaren 16ko 1088/2005 Errege Dekretuak testu bateratuan biltzen eta ordenatzen du aurretik zegoen araudi nazional guztia, eta horrez gain, bertako antolamendu juridikoan txertatzen ditu 2002/98/EE eta 2004/33/EE europar zuzentarauetako xedapenak.

Urriaren 11ko 1343/2007 Errege Dekretuaren bidez ezartzen dira transfusio-zentro eta -zerbitzuetako kalitate-sistemari dagozkion arauak eta zehaztapenak. Errege dekretu horren xedea eta edukia da Batzordearen 2005eko irailaren 20ko 2005/63/EE Zuzentarauaren edukiak betetzea, kalitate-sistemen alorrean.

Bestalde, maiatzaren 28ko 16/2003 Legeak, Osasun Sistema Nazionalaren Koherentzia eta Kalitateari buruzkoak, 59. artikuluan zerrendatzen du, kalitatea hobetzeko egin beharrekoak diren ekintzen artean, besteak beste, ezbeharren erregistroa, gaixoarentzat segurtasun-problema potentziala gertatzen diren praktikei buruzkoa.

Otsailaren 9ko SCO/322/2007 Agindua, odolaren eta odol-osagaien trazabilitate eta efektu negatibo larrien jakinarazpen betebeharrak ezartzen dituena, eman zen, hain zuzen, 1088/2005 Errege Dekretua betetzeko, zeinaren VII. kapituluak arautzen baitu odol-zainketa, eta exijitzen baitu, alde batetik, sistema bat ezartzea, trazabilitatea bermatzea ahalbidetuko duena, odol-emateak, odol-emaileak eta gaixoak banan-banan eta doitasun osoz identifikatzeko zainketa-prozedura antolatuen bidez, eta bestetik, erregistro-sistemak ezarri eta mantentzea, informazioa ebaluatu ahal izateko.

Zelula eta ehunei buruzko gaur egungo legedia.

Europar Batasunaren esparruan, autohornikuntza, segurtasuna, altruismoa eta zelulen eta ehunen ematea arautu dira Europar Parlamentu eta Kontseiluak 2004ko martxoaren 31n emandako 2004/23/EE Zuzentaruaren (giza zelula eta ehunen



emate, lorpen, ebaluazio, prozesatze, preserbazio, biltegiatze eta banaketarako kalitate- eta segurtasun-arauak ezartzeari buruzkoa) eta Batzordearen 2006/17/EE Zuzentarauan, otsailaren 8koan, zeinaren bidez aplikatzen baita Europar Parlamentu eta Kontseiluaren 2004/23/EE Zuzentzua, giza zelula eta ehunen emate, lorpen eta ebaluaziorako zenbait betekizun teknikori dagokienez.

Azaroaren 10eko 1301/2006 Errege Dekretuak Europako zuzentzua edukiak Estatuko antolamendu juridikoan txertatzen ditu.

Lege honek testu beren bildu eta ordenatzen du aurretik aipaturiko araudi nazional eta europar guztia, eta Nafarroako Foru Komunitateko antolamendu juridikoan txertatzen du.

Nafarroako Odol eta Ehun Bankua da erreferentziako organismoa, transfusio-baliabideei eta giza zelula eta ehunei dagokienez, Foru Komunitateko zerbitzu-zentro guztietarako, hala publikoak nahiz pribatuak eta itunduak, baina entitate publiko batek eduki behar duen orokortasun-, konfidentzialtasun- eta irabazien menpe ez egotearen bermearekin.

Nafarroako Transfusioen eta Giza Zelula eta Ehunen Sarea eratzen da hemoterapiaren eta zelula eta ehunen transplanteen erakunde funtzional gisa, honako maila hauetan arituko dena:

- Nafarroako Odol eta Ehun Bankua (NOEB).
- Ospitaleetako transfusio-zerbitzuak.
- Zelulen eta ehunen lorpen eta inplanterako ospitale-unitateak.
- Transplanteen koordinazio autonomikoa, gaur egun Emateen eta Transplanteen Koordinazio Autonomikoa.

Foru legeak bi kapitulu ditu.

I. kapituluan, Odol eta Ehun Bankuaren eraketa eta izaera definitzen da. Osasunbideari atxikia dago, "Nafarroako Foru Komunitateko Transfusio-zentro Komunitario eta Giza Zelula eta Ehunen Banku" izaerarekin, eta zuzenbide publikoko entitate gisa. Halaber, kapitulu horretan ezartzen dira erakunde horren jardura moldatu behar duten helburuak eta funtzioak, baldin eta autohornikuntza eta produktuen segurtasun gorena erdietsiko bada.

Nafarroako Foru Komunitateko Transfusio, Zelula eta Ehunen Sarea arautzen da. Honakoak osatua da: Nafarroako Odol eta Ehun Bankuak, transfusioko ospitale-zerbitzuek, zelulak eta ehunak lortzeko eta inplantatzeko unitateak, eta

Emate eta Transplanteen Koordinazio Autonomikoak.

Giza odolarekin eta giza jatorriko organo eta ehunekin loturik ardurapean ipini zaion jardueraren nolakotasunarengatik, Nafarroako Odol eta Ehun bankuak honako arauetan xedaturikoa bete behar du: odol-emateari buruzko 1088/2005 Errege Dekretua, giza zelula eta ehunei buruzko 1301/2006 Errege Dekretua, eta giza organo eta ehunei buruzko 2070/1999 Errege Dekretua.

II. kapituluan zehazten dira Nafarroako Odol eta Ehun Bankuko zuzendaritza-organuak, bai eta kontsulta- eta aholku-organuak ere, honakoak osatuak: Emate eta Transplantei buruzko Batzorde Aholku-emailea, Hemoterapia Batzordea, Ehunen Batzorde Teknikoa eta Transfusioko Ospitale-batzordeak.

## I. KAPITULUA

### Eraketa, izaera eta xedea

#### 1. artikulua. Eraketa.

Nafarroako Odol eta Ehun Bankua entitate publikoa eratzen da, Osasunbideari beste edozein zentro bezala atxikia, Osasunbideko Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzaren menpean, eta osasun-zerbitzuen alorreko erakunde bati dagozkion kontsiderazioarekin eta zuzendaritza-egiturarekin.

#### 2. artikulua. Izaera eta araubide juridikoa.

1. Nafarroako Odol eta Ehun Bankuak (NOEB) izanen du Osasunbideko Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzaren menpeko gainerako zentro publikoen izaera eta araubide juridiko bera. Zentro horien zerrenda agertzen da Osasunbidearen Estatutuetako 33.1.b) artikuluan. Estatutu hauek uztailaren 3ko 45/2006 Foru Dekretuz onetsi eta apirilaren 12ko 19/2010 Foru Dekretuz aldatu ziren.

2. Osasunbideko zuzendari kudeatzaileak NOEBen titularrarengan deskontzentratzen du, haren jardura-esparruaren barrenean, edonolako administrazio-kontratuak sinatzeko eskumena, baldin eta haien izapidetzerako aginduzkoa den dokumentu bakarra kasuko faktura bada, zenbatekoak ez duelako gainditzen administrazio-kontratazioari buruzko foru-araudian ezarritako kopurua.

#### 3. artikulua. Helburua.

NOEBen helburua izanen da giza odolarekin eta giza zelula, ehun eta organoetatik eratorritako produktuen osasun-premiei erantzutea, bai osasun-sare publikoaren bai osasun pribatuaren eta itunduaren esparruan, eta bermatuko du produktu

horien lorpena, biltegitratzea, kudeaketa eta hornidura, uneko eskuragarritasunaren arabera, bai eta Transplanteen Erakunde Nazionalarekiko koordinazioa ere.

NOEBek koordinatuko du Nafarroako Foru Komunitateko Transfusio, Zelula eta Ehunen Sarea, honakoek osatua:

1. Nafarroako Odol eta Ehun Bankua (NOEB).
2. Odolaren eta hemoderibatuen ospitale-gordailuak: transfusio-zerbitzuak.
3. Zelulen eta ehunen lorpen eta/edo inplantarako ospitale-unitateak.
4. Nafarroako Emateen eta Transplanteen Koordinazio Autonomikoa.

**4. artikulua.** Doakotasuna eta irabazi-asmorik eza.

Odola, zelulak, ehunak eta organoak emateari buruzko Europako gidalerroetako oinarritzko printzipioak aplikatuz, ematea ekintza boluntariorat eta altruistatzat jotzen da, eta emaleak ezin du ordain ekonomikorik jaso; halaber, hartzaileari ere ez zaio inolako ordainik exijituko erabilitako odol, zelula, ehun eta organoengatik. Odol-, zelula-, ehun- eta organo-establezimenduen jarduerak ez dute irabazi-asmorik izanen, eta soil-soilik ordainarazi ahalko dira baimendutako jarduerak egiteagatik emandako zerbitzuen egiazko kostuak.

**5. artikulua.** Helburuak.

NOEB entitate publikoak honako helburu orokor hauek ditu:

- a) 1088/2005 Errege Dekretua bete dadin zaintzea eta Nafarroako Gobernuaren gidalero estrategikoak gauzatea hemoterapiari eta osasun-erabilerarako giza zelulen eta ehunen lorpenari dagokienez, bai eta arlo horretan Osasun Departamentuak zehazten duen politikari dagokionez ere.
- b) Nafarroan emate doakoa eta altruista sustatu eta bultzatzea, eta beharrezkotzat jotzen diren azpiegituren eraikuntzan eta zerbitzuen ematean laguntzea.
- c) Nafarroako Administrazioaren aurrean jardutea premien asetze orokorra lortzeko eta odola, zelulak eta ehunak bana dakizkien haien beharrenda osasun-zentro guztiei.
- d) Nafarroaren beregaintasuna lortzea odolari eta hemoderibatuei dagokienez.
- e) Nafarroako Administrazioaren jarduna koordinatzea beste administrazio publiko eta entitate

publiko edo pribatu batzuenarekin, emateari dagokionez, nork bere eginkizunen esparruan.

f) Odol homologoarekiko eta hemoderibatuekiko esposizioaren murrizketa sustatzea, erabilera-gomendioak eta indikazioak eguneratuz eta jakinaraziz eta transfusioaren beste alternatiba batzuk indartzuz, autotransfusio-modalitate guztiak barne.

g) Odol-, zelula-, ehun- eta organo-emaleek osaturiko talde osoarentzako erregistro bateratua sortzea, bai eta aldi baterako edo behin betiko bazterturiko emaleen erregistro bat ere, bazterketaren arrazoiak adieraziko dituen.

h) Emaleengandik hartzailearenganako trazabilitatea eta alderantzizkoa ere bermatzea, Nafarroan banaturiko odol, odol-osagai, zelula eta ehunetarako.

i) Hemozinketa eta Biozinketa sareak koordinatzea Nafarroako Foru Komunitatearen barrenean, eta horiek Estatu-mailan koordinatzeko jardutea (1301/2006 Errege Dekretua eta y SCO/322/2007 Agindua).

j) Organo-emateen eta transplanteen koordinazioaz arduratzea eta indarreko araudia betetzen dela zaintzea (gaur egun, 2070/1999 Errege Dekretua).

**6. artikulua.** Eginkizunak.

NOEBek, dituen helburuak garatu eta betetzeko, ondoko ataletan zehazten diren berariazko eginkizunak dauzka esleituta:

1. Transfusio-zentro komunitario gisa, honako eginkizun hauek beteko ditu:
  - a) Zentro eta zerbitzuen jarduerak Nafarroako Transfusioen eta Giza Zelula eta Ehunen Sarean koordinatzea.
  - b) Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan odolaren eta odol-osagaien ematea planifikatu eta sustatzea.
  - c) Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-esparruan odolaren eta odol-osagaien erauzketa egitea, geroago terapiarako hemoderibatu gisa erabiliak izan daitezen.
  - d) Terapiakoak ez diren plasmaferesi- eta zitaferesi-programak garatzea, emate altruistan oinarrituak, autohornikuntza erdieste aldera.
  - e) Kasu bakoitzean behar diren odol-osagaiak prozesatu eta lortzea, hala odol orokorretik datozenean nola emale bakarrarengandik datozenean.
  - f) Nafarroako Foru Komunitatearen barrenean industria frakzionatzailearekin eginiko plasma-trukearen ardura hartzea.

g) Inbentario eguneratu bat edukitzea, emailei, baliabide material eta giza baliabideei eta transfusio-zentro eta -zerbitzu ezberdinen –publiko nahiz pribatuen– jarduerari buruz, bai eta esleituriko lurralde-esparruan odolaren eta odol-osagaien beharrian eta kontsumoei buruz ere, eskueran dauden odol-osagaiak zein diren jakitearren.

h) Nafarroako Foru Komunitateko transfusio-zentro eta -zerbitzu publiko eta pribatu guztien beharrianen asetzea planifikatzea eta odolaren nahiz odol-osagaien banaketa kudeatzea; orobat, beharrian dauden eta eskaera egiten duten beste erkidego batzuek dituzten odol eta odol-osagaien premiei erantzutea.

j) Nafarroako Foru Komunitatekoak ez diren transfusio-zentroetatik iritsitako odol-osagaiak jasotzea, gero batean haien egokitasuna egiaztatzea eta haiek banatzeko.

j) Larrialdi baten ondoriozko premiak dituzten gaixo sentsibilizatuen kasuetan odolaren eta odol-osagaien hornikuntzaz arduratzea.

k) Jokabide egokiko irizpideetan oinarrituriko kalitate-sistema bat ezartzea, ikuskatzea eta eguneratuta edukitzea, zeina Foru Komunitatean gai honetan ardura duten zentro eta zerbitzu guztientzat komuna izanen baita.

l) Erkidegoko hemozainketa-sarea koordinatzea.

m) Emaileari bere osasun-egoerarekin zerikusia duen edozein emaitza anomalo jakinaraztea.

n) Autotransfusioko, odol-aurrezpeneko eta gutxieneko transfusio-eskemetako programak sustatzea erkidegoko ospitale guztietan.

ñ) Bere eskumen teknikoei buruzko txostenak ematea agintari eskudunek hala eskatuta, Foru Komunitateko transfusio-zentro eta -zerbitzuak irekitzeari eta/edo eraldatzeari ere dagokionez.

o) Erreferentziako zentroa izatea populazioaren eragin txikia duten halako kasuetarako non diagnostikoak edo tratamenduak odolaren, odol-osagaien edo erabilera urriko erreaktiboaren eskuragarritasuna izatera behartzen duen.

p) Hemoterapiarekin lotura duten langileen prestakuntzarako programak ezartzea.

q) Bere ardurapean utzi zaizkion eginkizun guztiekin zerikusia duten ikerketa-lanak egitea.

r) Aurretik aipaturikoen antzekoa den edo horiekin zerikusia duen beste edozein; batez ere, 1088/2005 Errege Dekretuan, 1343/2007 Errege Dekretuan eta CSO/322/2007 Aginduan jasotako

Europako zuzentarauetan adierazitako eginkizunak.

2. Odol eta Giza Ehunen Banku gisa, honako eginkizun hauek beteko ditu:

a) Azaroaren 10eko 1301/2006 Errege Dekretua bete dadin zaintzea, eta bere jarduna egokitzea agintariak emandako arau eta gidalerroen arabera.

b) Zelulak eta ehunak lortzeaz arduratzen diren lan-taldeak koordinatzea.

c) Giza zelulak eta ehunak prozesatu, gorde, biltegitatu, kontserbatu, kontrolatu, banatu eta garraiatzea.

d) Lankidetzan aritzea helduengan eta haurrengan ordezkio terapia edo transplante hematopoietikoko ezberdinak egiteko kreditatuak diren osasun-zentroekin.

e) Lankidetzan aritzea aurrerapen teknikoek eta ebidentzia zientifikoak emandako justifikazioa daukaten zelula- edo birsorkuntza-terapia mota ezberdinak egiteko kreditazioa daukaten osasun-zentroekin, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan aplikatuak eta gauzatuak izan daitezten.

f) Arau teknikoak ezartzea emaileak hautatzeko eta ehunak nahiz zelulak prozesatzeko, unean uneko jakintza zientifikoaren arabera; betiere, prozesuaren trazabilitatea bermatzeko da.

g) Ehun bakoitzerako kalitate-sistemak edukitzea, lortzen denetik inplanterako helarazten den arte.

h) Beste zentro batzuekiko jarduketan frogagiriak gordetzea.

i) Emaileen seroteka bat mantentzea.

j) Ehun- eta zelula-emaileen eta horien hartzaile direnen erregistro bateratu bat edukitzea.

k) Beste banku batzuekiko ehun-trukeaz arduratzea eta, kasua bada, ehunak Espainian sartzeko edo bertatik ateratzeko baimena eskatzea.

l) NOEBaren esparrukoak diren langile-prestakuntzarako programetan parte hartzea,

m) Txostenak ematea osasun-alorreko agintari eskudunek eskatuta.

n) Ardurapean utzi zaizkion eginkizunekin zerikusia duten ikerketa-lanak egitea.

ñ) Beste zentro batzuekiko harreman nazionalak nahiz nazioartekoak ezarri eta koordinatzea eta produktu-trukea arautzea, 1591/2009 Errege Dekretua betetzeko.

o) Antzekoa den edo aurrekoekin zerikusia duen beste edozein; batez ere, ehunentzako kalitate- eta segurtasun-arauak ezartzen dituen 1301/2006 Errege Dekretuan jasotakoak eta etorkizunean onets litezkeen arauetan bildutakoak.

3. Organo-emate eta -transplanterako zentro autonomiko gisa, honako eginkizun hauek beteko ditu:

a) Zaintzea bete egiten dela abenduaren 30eko 2070/1999 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira giza organoak lortzeko eta klinikoki erabiltzeko jarduerak eta organo-emate eta -transplantearen alorreko lurralde-koordinazioa.

b) Ziurtatzea ezen organo-emaileei eta -hartzailailei buruzko informazioa konfidentzialtasunik zorrotzenarekin bildu, tratatu eta zainduko dela.

c) Populazioaren informazioa eta hezkuntza sustatzea emate eta transplanteei dagokienez, horien premian dauden pertsonen ekartzen dizkieten onurei dagokienez, bai eta prozedura honen inguruko baldintza, betekizun eta bermeei dagokienez ere.

d) Jarduera horiekin zerikusia duten osasun-alarreko profesionalen etengabeko prestakuntza sustatzea.

e) Bizirik dauden organo-emaileei eta hildakoen organo-erazketari buruz indarreko araudiak ezartzen dituen baldintzak eta betekizunak betetzen direla ziurtatzea.

f) Bizirik dauden emaileen eta hilik daudenen organo-erazketarako zentroein buruzko araudi indardunean exijituriko betekizunak bete egiten direla ziurtatzea.

g) Erregistro bat antolatu eta mantentzea, non beharrezkoak diren datuak bilduko baitira eginiko erazketak, lorturiko organoak eta haien norakoa identifikatzeko, anonimotasuna eta konfidentzialtasuna ziurtatzen duten gako alfanumeriko egokiek, indarreko legediak ezarritakoaren arabera.

h) Serum-artxibo bat mantentzea.

i) Esparru publikoan inplante alogenikoak egin ahal izateko, behar bezala kreditatu eta baimendutako histokonpatibilitate-unitate bat eduki beharko da, berariazko betekizuna baita bere eginkizunak bete ahal izateko, indarreko araudiari jarraituz.

j) Osasun eta Kontsumo Ministerioari jakinaraztea hildako emaileen organoen erazketarako zentroetarako baimenei dagozkien erabakiak.

k) Ziurtatzea ezen giza organoen garraioak bete egiten dituela horretarako ezarrita dauden betekizunak.

l) Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluko Transplante Batzorde Iraunkorrean parte hartu eta harekin lankidetzan aritzea.

m) Organo-erazketa eta/edo -inplanterako kreditaturiko ospitale bakoitzean ezartzen diren transplante-koordinazio-unitate ezberdinak koordinatzea.

n) Erazketa- eta/edo transplante-jarduerako prozeduretan parte hartzen duten zentroyen eta transplanteen koordinazio-unitateen ikuskapenari dagokionez lankidetzan aritzea autonomia-erkidegoan gai horretan eskudun den agintariarekin.

ñ) Aurrekoen antzekoa edo haiekin zerikusia duen beste edozein, eta etorkizunean onets litezkeen arauetan jasotako beste edozein.

4. NOEBek odol-ematearen eta bestelako emateen sustapenarekin lotuta dituen eginkizunak betetzeko, entitate horrek lankidetzarako esparruhitzarmen bat sinatuko du ADONA-Nafarroako Odol-emaileen Elkartearekin, odolaren eta hezurmuinaren ematearen planifikaziorako eta sustapenerako, bai eta bi alderdiek beharrezkotzat jotzen dituzten hitzarmen guztiak ere. Helburu berarekin eta baldintza beretan, lankidetzahitzarmenak sinatu ahalko dira entitate publiko eta/edo pribatu batzuekin, zeinek giza zelula eta ehunen bankuaren jarduerekin eta, batez ere, zelula, ehun eta organoen emate altruistarekin zerikusia baitute.

5. NOEBek, bere eskumenen esparruan, aholkularitza zientifiko eta tekniko emanen dio ADONA Nafarroako Odol-emaileen Elkarteari, bere eginkizunak bete ditzan, bai eta foru lege honen helburuak betetzearekin zerikusia duten jarduerak egiteko baimenduta dagoen edozein entitate edo elkarteri ere.

6. Emate altruisten sustapena bateratzea bulztatu eta sustatuko da, esparru horretan jarduten duten elkarrekin arituz, baliabideak eta ahaleginak bategite aldera.

**7. artikulua.** Nafarroako giza zelulen eta ehunen transfusio-sarea.

Giza zelulen eta ehunen transfusio-sarea honako hauek osatuko dute:

1. Nafarroako Odol eta Ehun Bankua (NOEB).

2. Odolaren eta hemoderibatuen ospitale-gordailuak.

3. Giza ehunen lorpen eta inplanterako ospitale-unitateak.

4. Organo-emateen eta -transplanteen koordinazio autonomikoa

**8. artikulua.** Odol-gordailuak eta ospitaleetako transfusio-zerbitzuak.

1. Hematologian eta hemoterapian espezialista den arduradun mediko batek zuzenduko ditu erkidegoko ospitale publikoetan eta pribatuetan kokaturiko odol-gordailuak eta transfusio-zerbitzuak, hematologia- eta hemoterapia-unitateetan edo -zerbitzuetan sartuak, eta zuzendaritza-zeregin horiek bateragarri izanen zaizkio zerbitzu edo unitate horietan betetako beste eginkizun batzuekin.

2. Ospitaleetako transfusio-zerbitzuek eta odol-gordailuek honako berariazko eginkizunak beteko dituzte transfusio eta giza zelula eta ehunen sarearen esparruan:

a) NOEBekin lankidetzan aritzea ospitale barneko odol-emate altruista eta boluntarioaren sustapenean.

b) Baimenduta dauzkaten hemoterapia-produktuak prestatzea.

c) Kokatuta daudeneko ospitaleko transfusio-zerbitzuaz arduratzea eta transfusio-prozesuaren kalitate-kontrola ziurtatzea, horretarako egoki diren azterlan eta behaketen bitartez eta 1343/2007 Errege Dekretuan ezarritakoa betez.

d) Transfusio-kalitatearen hemozaintza komunitarioaren sarean parte hartzea, Osasun eta Kontsumo Ministerioko SCO/322/2007 Aginduan ezarritakoari jarraituz.

e) NOEBarekin lankidetzan aritzea irakaskuntza- eta ikerketa-programetan.

**9. artikulua.** Giza zelula, ehun eta organoen lorpenerako eta/edo inplanterako unitateak.

1. Erkidegoko ospitale publiko eta pribatuetan kokaturiko zelula-, ehun- eta organo-lorpenerako eta/edo -inplanterako unitateek zuzendari izanen dute bere eginkizunak betetzeko beharrezkoa den titulazioa daukan arduradun bat.

2. Giza zelulen, ehunen eta organoen lorpenerako eta/edo inplanterako zentroek honako berariazko eginkizunak beteko dituzte transfusio eta giza zelula eta ehunen sarearen esparruan:

a) NOEBekin eta transplanteen koordinatzaile autonomikoarekin lankidetzan aritzea giza zelulen, ehunen eta organoen emate altruista ospitale barneko esparruan sustatzeko.

b) Behar diren neurriak hartzea, era horretan ziurtatzeko ezen haietan ingesatzen diren herritar guztiek eta beren ahaideek helburu terapeutikotarako organo-emate eta -erauzketaren gaineko araubidea osoki ezagutzen dutela.

c) Giza ehunen lorpen, gordetze, garraio eta inplantearen kalitate-programan parte hartzea, prozesu osoaren kalitate-kontrola ziurtatuz, egoki diren azterlan eta behaketen bitartez, eta 1301/2006 Errege Dekretuan ezarritakoa betez.

d) NOEBarekin lankidetzan aritzea ezartzen diren irakaskuntza- eta ikerketa-programetan.

e) Zelulen, ehunen eta organoen erauzketen eta inplanteen erregistro eguneratu bat mantentzea, bai eta zentroaren jarduerarekin zerikusia duten administrazio-alderdi guztiena ere, datu-babesari buruzko legea betez.

f) Exijituriko informazio guztia ematea eskatua den moduan, baimenduta daudeneko jarduerari dagokionez.

**10. artikulua.** Organo-emateen eta -transplanteen koordinazioa.

2070/1999 Errege Dekretuko 20. artikulua aplikatuz, Foru Komunitateko transplanteen koordinazioari "Organo Emateen eta Transplanteen Koordinazioa" deituko zaio.

1. Haren zuzendaritzaz koordinatzaile autonomiko bat arduratuko da, agintari eskudunak Osasunbideari atxikitako langileen artetik izendatua, eta ematearen eta transplanteen esparruan esperientzia frogatua izan beharko du. Haren lanaldia eskusiboa izanen da koordinatzaile gisa esleiturik daukan eginkizunak betetzeko, eta organikoki NOEBeko zuzendariaren menpe egonen da.

2. Organo eta ehunen erauzketarako eta/edo transplanterako baimenduriko ospitale bakoitzean, bertako zuzendariak organo- eta ehun-transplanteen koordinatzaile bat izendatuko du.

3. Zentro bakoitzak beharrezkoak diren azpiegitura eta bitartekoak izanen ditu, organoen eta ehunen erauzketa eta/edo transplantea indarreko legedian ezarritako betekizunen arabera egiteko.

Emate eta transplanteen koordinatzaile autonomikoak honako eginkizun hauek beteko ditu:

a) 2070/1999 Errege Dekretua bete dadin zaintzea, bai eta koordinatzailearen jarduerari buruz etorkizunean argitaratzen diren arau guztiak ere.

b) Osasun Sistema Nazionaleko Lurralde arteko Kontseiluko Transplante Batzorde Iraunkorrak ezartzen dituen helburu orokorretarako lankidetzan aritzea.

c) Ehunen Batzorde teknikoan parte hartzea.

d) Erkidegoko biozainketa-sarea koordinatzea.

e) Agintari eskudunek haren gain utzitako beste edozein eginkizun.

Ospitale bakoitzeko organo- eta ehun-transplanteen koordinatzaileak honako eginkizun hauek beteko ditu:

Zelulen eta ehunen lorpen eta/edo inplanterako jarduerak koordinatzea. Ehunen Batzorde Teknikoan parte hartzea.

Zentroko biozinketa-sistemaz arduratzea.

Agintari eskudunek esleitzen dioten beste edozein.

Bere zentroan organo- eta ehun-transplanteekin zerikusia duten jardueretan indarreko legedia bete dadin zaintzea.

## II. KAPITULUA

### Zuzendaritza-organoak: Kudeaketa eta Giza Baliabideen zuzendaria eta zuzendariordea

#### 11. artikulua. NOEBaren zuzendaria.

1. Zuzendari-postua oposizio-lehiaketa bidez beteko da, erakunde autonomoari atxikita dauden hematologia eta hemoterapiako langile mediko espezialisten artean, betiere transfusio-alorrean bi urte baino gehiagoko esperientzia frogatzen badute.

2. Zuzendariaren erantzukizunak honakoak izanen dira:

a) Bere gain hartzea aipaturiko zentroaren ordezkari ofiziala eta zentroaren barruko agintaritza gorena egikaritzea.

b) Osasunbideko zuzendaritzak ezarritako gidalerroak eta arauak betetzea eta betearaztea.

c) Lan-ildoak proposatzea eta entitatearen jardueraren emaitzak ebaluatzea.

d) NOEBi atxikitako unitate ezberdinen jarduerak eta helburuak elkarlanean antolatu, zuzendu eta ebaluatzea.

e) Entitatearen urteroko jarduera-oroitidazkia eta urteroko aurrekontuen proposamena prestatzea eta horien betetzeari buruzko aldizkako txostenak aurkeztea.

f) Zentroaren eginkizunek beharrezkoa duten plangintza, koordinazioa, zuzendaritza eta ebaluazioa mantentzea Nafarroako transfusio eta zelula eta ehunen sarearen osotasunean.

g) Informazio-sistema bat sortu eta mantentzea, efizientziaren eta kalitatearen ebaluazioa eta kontrola ahalbidetuko dituen.

h) Berrikuntza, etengabeko hobekuntza eta bere zerbitzuen kalitatearen ebaluazioa sustatzea, eta bere eginkizunen jarraitasuna bermatzea.

i) Atxikitako unitate ezberdinen arteko baliabide-banaketa aldatzea.

j) Odol-bankuan baldintza eta betekizun guztiak aplikatzea eta 1088/2005 Errege Dekretuak araututako funtzionamendu-araubidea ezartzea.

k) Baimentze-prozeduretan eskudun diren osasun-agintariei informazioa ematea, 1088/2005 Errege Dekretuan aipaturiko gutxieneko informazioaren arabera.

l) Langileei, kalitateari, dokumentazioari, erregistrozari, trazabilitateari eta kontrako eragin eta erreakzio larrien jakinarazpenari buruz 1088/2005 Errege Dekretuak, 1343/2007 Errege Dekretuak eta CSO/322/200 Aginduak ezarritako betekizunak betetzea.

m) Zaintzea Foru Komunitatearen esparruan gizakiengan inplantatzekoak diren ehunak eta zelulak prozesatu, biltegitatu eta banatuak direla 1301/2006 Errege Dekretuak ezarritakoari jarraituz.

n) Osasun-arloko agintari eskudunei informazioa ematea 1301/2006 Errege Dekretuak ehun-establezimenduei exijituriko baldintzei, betekizunei eta funtzionamendu-araubideari buruz.

ñ) Zelula- eta ehun-bankuan baldintza eta betekizun guztiak aplikatzea eta 1301/2006 Errege Dekretuak araututako funtzionamendu-araubidea ezartzea.

o) NOEBeko ikerketa- eta irakaskuntza-programa prestatzea.

p) Osasunbideko zuzendari-kudeatzaileari modu jarraian aholku ematea, egokitzen jotzen dituen hobekuntza guztiak proposatuz.

q) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak espresuki esleitzen dizkion beste eginkizun guztiak.

#### 12. artikulua. NOEBeko Kudeaketa eta Giza Baliabideen zuzendariordea.

1. Zuzendariorde-postua betetzeko, agintari eskudunak askatasunez izendatu ahal du Nafarroako Gobernuaren plantillako langile bat, esleituriko zereginetan esperientzia frogatua duena.

2. Kudeaketa-alorrean, zuzendariordearen berriazko eginkizunak honako hauek izanen dira:

a) NOEBaren baliabide material finko eta mugikorren kontserbazio funtzionala ziurtatzea, eta atxikitako ondarea egokiro kudeatzea.

b) Urteko aurrekontuak prestatu eta kudeatzea, gastuetakoak zein diru-sarreretakoa.

c) Kontabilitateko eta aurrekontuetako egoerari aldizkakoak aurkeztea, erregelamendu-printzipioen arabera.

d) NOEBeko unitateentzat beharrezkoak diren baliabide materialen hornikuntza kudeatzea; halaber, hornigai horiek egokiro biltegitratzeko eta unitate eskatzaileei banatzeko kudeaketa-lana egitea.

e) NOEBerako ibilgetuaren eta erabiltzen ari den ekipamenduaren mantentze prebentiborako planak sustatu eta kontrolatzea, eta horiek guztiak behar bezala konpondu eta birjarriko direla segurtatzea.

f) Zerbitzuen funtzionamendurako beharrezkoak diren hornikuntza txikien kontratuak sinatzea, eta konponketa eta mantentze hutsekoak diren lanak egitea, betiere haien zenbatekoak hornidura txikietarako ezarritako mugak gainditzen ez baditu.

g) Konturako ziurtagirien, material inbentariagarriaren fakturen, bestelako hornigaien, konponketa eta mantentze hutsekoak diren lanen eta laguntza teknikoko kontratuen ordainketak baimentzea, organo eskudunak haien gastua onetsi badu.

h) NOEBeko arropa zuriaren, arropa-garbitegiaren, garbitze-lanen eta mantentze-lanen zerbitzuen eta agindupeko langileen gaineko zuzendaritza-, koordinazio- eta ikuskapen-lanak egitea.

i) Behar diren aplikazio informatikoen eta laguntza administratiboen ezarpen, funtzionamendu eta erabileraren gaineko zuzendaritza- eta koordinazio-lana egitea.

j) NOEBeko zuzendariak berariaz eskuordetutako beste eginkizunak.

3. Langileria-alorrean, NOEBeko zuzendariordeak berariazko eskumen hauek izanen ditu:

a) NOEBeko langileen burutza.

b) NOEBeko langileen jardueren, eginkizunen eta funtzioen gaineko zuzendaritza- eta koordinazio-lana.

c) NOEBaren egitura organikoaren barrenean, langileei lanpostu zehatzak esleitzea.

d) Langileak lanerako ezintasun iraunkor osoko edo absolutuko egoeran daudela deklaratzeko edo haiei alta emateko proposamenak egitea.

e) Falta arinengatiko diziplina-espeditentak ireki eta ebaztea.

f) Langileria-alorreko beharrianak zehaztea, kasuko enplegu-eskaintzak, plantilla organikoa eta langileen zerrenda izendunak prestatzeko.

g) Aldi baterako langileen kontratazioa baimendu eta formalizatzea, erregelamenduz ezarritako prozeduraren bitartez.

h) NOEBari atxikitako langileen baimenak, lizentziak, oporrak eta joan-etorriak baimentzea.

i) NOEBari atxikitako langileentzako produktibitate-osagarria, gastu-ordainketa eta epaimahaie-tan nahiz prestakuntza-ikastaroetan parte hartze-gatiko diru-saria baimentzea, organo eskudunak ezarritako zenbatze-irizpideei jarraituz.

j) Zerbitzua dela-eta egin beharreko joan-etorriak baimentzea.

k) Hartzekoei eta emandako zerbitzuei buruzko ziurtagiriak ematea.

l) Nominak, aseguru sozialak, osasun-laguntza eta langileen bestelako prestazio ekonomikoak egituratu eta kudeatzea. Langabeziako sorospena jasotzeko behar den dokumentazioa formalizatzea. Hori guztia, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzak emaniko jarraibideak zorrotz betez.

m) Langileen erregistro integratua, espediente pertsonalak, plantilla organikoa eta zerrenda egin, mantendu eta gaurkotzea

n) NOEBeko zuzendariak berariaz eskuordetutako beste eginkizunak.

### III. KAPITULUA

#### Kontsulta- eta aholkularitza-organoak

**13. artikulua.** Emateen eta Transplanteen Kontsulta Batzordea

1. NOEBi aholku emateko organo gisa, kontsulta-batzorde bat izanen da, honako kide hauek osatua:

Batzordeburua: Osasun Departamentuko zuzendari nagusia.

Idazkaria: NOEBaren zuzendaria.

Batzordekideak:

- Osasun Departamentuko ordezkari bat, Osasun zuzendari nagusiak proposatua.

- Laguntza Espezializatuko zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona bat.

- Organo-emateen eta -transplanteen koordinatzaile autonomikoa.

- Odol Emaileen Elkartearen bi ordezkari.

- Giza odol-, zelula-, ehun- eta organo-emate altruistari dagokionez existitzen diren edo eratu litezkeen beste elkarten ordezkari bana.

- Batzordeko kideek hala eskaturik, azterturiko gaietan aditu direnen lankidetzatza izan ahalko da.

2. Kontsulta-batzordeak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Foru Komunitatearen barrenean odol-, hemoderibatu-, zelula-, ehun- eta organo-emate altruista sustatzea.

b) Odol eta hemoderibatuei –giza plasmatik eratorritako farmazia-produktuak barne-, zelulei eta ehunei dagokienez beharrian-asetzearen eta beharra duten osasun-zentro guztiei banaketa egitearen nondik norakoak programatzea.

c) Odol- eta hemoderibatu-unitateen ebaluazio ekonomikoa, giza plasmatik, organoetatik, ehunetatik eta zeluletatik eratorritako produktu farmazeutikoak barne.

d) Organo eta ehunen emate eta transplantean jarduten diren beste elkarte, erakunde eta entitate batzuekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea.

3. NOEBen zuzendariak Batzorde Aholku-emaileari informazio xehaketa eman beharko dio, sei hilabetean behin edo maizago, lorturiko odol, hemoderibatu, zelula, ehun eta organoei buruz, horien helmugari buruz eta jardueren zenbatespen ekonomikoari buruz.

4. Batzorde Aholku-emaileak bilkura arrunta egingen du sei hilabetean behin, eta ohiz kanpoko egingen du batzordeburuak horretarako deialdia egiten duenean edo batzordekideen heren batek horretarako eskaera egiten duenean.

#### 14. artikulua. Hemoterapia Batzordea.

Hemoterapia-alorrean eta Nafarroako hemozaintza-sistemaren funtzionamenduari dagokionez aholkularitza tekniko emateko organo gisa eratzten da Hemoterapia Batzordea, honako hauei aholku emateko: osasun-arloko agintariei, NOEBi eta Nafarroako osasun-laguntzako zentro eta zerbitzu ezberdinei. Honako kide hauek osatuta egonen da Hemoterapia Batzordea:

Batzordeburua: Osasun Departamentuko zuzendari nagusia, edo hark eskuordetutako pertsona bat.

Idazkaria: Nafarroako hemozaintza-koordinatzailea.

Batzordekideak:

- Laguntza Espezializatuko zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona bat.

- NOEBaren zuzendaria.

- Emateen eta transplanteen koordinatzaile autonomikoa.

- Nafarroako hemozaintza-koordinatzailea.

- Nafarroan kokaturiko ospitale publiko eta pribatu bakoitzeko transfusio-zerbitzuko arduraduna.

Batzordekideek hala eskaturik, azterturiko gaietan aditu direnen lankidetzatza izan ahalko da.

Hemoterapia Batzordeak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Sei hilabetean behin odol- eta hemoderibatu-ematearen bilakaera jakitea, horrela ebaluatze-ko Odol Bankuko zerbitzuen estaldura-maila edo beharrian teknikoekiko egokitzapena.

b) Nafarroako Hemozaintzako Koordinatzailearen urteroko txostena onestea.

c) Jakinarazi beharreko kontrako erreakzioak proposatzea, bai eta modua, mota eta nomenklatura, eta haiek ondoren izan beharreko ebaluazioa ere, Hemoterapia Batzorde Nazionalak erabakitakoaren ildotik.

d) Jarduketak proposatzea, dauden beharrian-asetze-maila hobetzeko eta odola nahiz hemoderibatuak helarazteko horien beharrian dauden osasun-zentro guztiei.

e) Transfusioen kalitatearen adierazleak Foru Komunitatearen esparruan definitzea, bai eta ospitale bakoitzaren esparruan ere; transfusioen ospitale-batzordeen bitartez, kasua bada.

f) Osasun-arloko agintariei informazioa ematea haiek ezartzen duten moduan eta maiztasunarekin, eta, betiere, osasun publikoan eragina izan lezakeen edozein alarma- edo larrialdi-egoeratan.

Hemoterapia Batzordearen funtzionamendua bat etorriko da batzorde horrek onesten duen barne-araubideko erregelamenduekin.

Arau orokor gisa, batzordeak bilkura arrunta egingen du sei hilabetean behin, eta ohiz kanpoko egingen du batzordeburuak horretarako deialdia egiten duenean edo batzordekideen heren batek horretarako eskaera egiten duenean.

#### 15. artikulua. Ehunen eta Organoen Batzorde Teknikoa.

1. Zelulen eta ehunen alorrean NOEBi aholku emateko organo gisa, ehunen batzorde tekniko bat arituko da, honako hauek osaturikoa:

Batzordeburua: Osasun zuzendari nagusia

Idazkaria: NOEBaren zuzendaria

Batzordekideak:



- Laguntza Espezializatuko zuzendaria edo hark eskuordetutako pertsona bat.

- Organo Emateen eta Transplanteen Koordinatzailea.

- Ospitale publiko eta pribatuetako ehun-lorpen eta/edo -inplanteke unitate bakoitzeko arduraduna, ospitaleko zuzendariak proposatuta.

Batzordekideek hala eskaturik, azterturiko gai-etan aditu direnen lankidetzatza izan ahalko da.

Ehunen eta Organoen Batzorde Teknikoak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Sei hilabetean behin zelulen, ehunen eta organoen ematearen eta inplanteen bilakaera jakitea, horrela ebaluatzeko kreditaturiko zerbitzu ezberdinen estaldura-maila edo beharizan teknikoekiko egokitzapena.

b) Nafarroako Biozaintzako Koordinatzailearen urteroko txostena onestea.

c) Jakinarazi beharreko kontrako erreakzioak proposatzea, bai eta modua, mota eta nomenklatura, eta haiek ondoren izan beharreko ebaluazioa nahiz egoki diren zuzenketa-ekintzen ezarpena ere.

d) Jarduketak proposatzea, dauden beharriaren asetze-maila hobetzeko eta zelulak eta ehunak banatzeko horien beharriaren dauden osasun-zentro guztiei.

e) Ehun-inplanteen kalitatearen adierazleak Foru Komunitatearen esparruan definitzea, bai eta ospitale bakoitzaren esparruan ere; haien kontrolerako eraturiko ospitale-batzordeen bitartez, kasu bada.

Ehunen eta Organoen Batzorde Teknikoaren funtzionamendua bat etorriko da batzorde horrek onesten duen barne-araubideko erregelamendurekin.

**16. artikulua.** Ospitaleetako transfusio-batzordeak.

1. Ospitale bakoitzean, hala publikoetan nola pribatuetan, NOEBek horniturikoak diren odolaren eta hemoderibatuen kudeaketa modurik onenean egiteaz arduratzen diren organoak dira.

2. Kide hauek izanen dituzte:

Batzordeburua: Ospitaleko zuzendari medikoa.

Idazkaria: Odolaren eta hemoderibatuen ospitale-gordailuaren arduraduna.

Batzordekideak:

- Komunitateko hemozaintza-koordinatzailea.

- Honako zerbitzu edo atal hauetako fakultatibo ordezkariak (zerbitzu edo atal horiek egonez gero): anestesia, kirurgia kardiakoa, kirurgia orokorra, kirurgia baskularra, kirurgia torazikoa, hematologia, barne-medikuntza, nefrologia, obstetrizia, onkologia eta traumatologia.

- Erizaintza-zuzendaritzako ordezkaria eta hemoterapia-unitateko erizain bat.

Batzordekideek hala eskaturik, azterturiko gai-etan aditu direnen lankidetzatza izan ahalko da.

3. Ospitaleko transfusio-batzordea hiru hilabetean behin bilduko da, eta honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Ospitale bakoitzean gauzatzen diren jarduerak klinikoei egokiturik transfusiogintzako zer estandar eta prozedura aplikatuko diren zehaztea.

b) Ospitaleko jarduerak ebaluatzea, transfusio-estatistika aztertuz, eta zuzenketa-neurriak proposatzea, aurreikusitakoarekiko desbideraketarik egonez gero.

c) Ospitale-esparruan odolaren eta hemoderibatuen erabilerririk egokiena sustatzea.

d) Transfusioarekin zerikusia duten irakaskuntza-jarduerak sustatzea zeregin horrekin zerikusia duten osasun-alorreko langileen artean.

e) Transfusio-alorrarekin zerikusia duen dotazio teknikoa, materiala eta pertsonala ebaluatzea.

f) Transfusioaren metodologia arautzea (laginerauzketa, identifikazioa, osagai-motak eta bolu-mena, eskaerak eta erabilera-plana).

g) Erabateko odol-transfusio guztiak ebaluatzea.

h) Egiatzaturiko transfusioi-erreakzio guztiak ebaluatzea.

i) Autotransfusio-egiteak sustatzea, horrek dituen indikazio terapeutikoen barruan.

j) Ospitale-esparruan ematea sustatzea.

k) Beste ospitale batzuekiko eta NOEBekiko lankidetzari eustea.

l) Indarreko legedia bete dadin zaintzea, ospitale barruko odol-emateari, -transfusioei eta hemoderibatuei dagokienez.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Osasunbidearen Estatutuak aldatzea.

Aldatu egiten da Osasunbidearen Estatutueta-ko 33. artikulua. Estatutu hauek uztailaren 3ko 45/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsi eta apirilaren 12ko 19/2010 Foru Dekretuaren bidez aldatu

ziren. Hain zuzen ere, Osasunbidearen Estatutuetako 33. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letran (zentroak), beste hau gehitzen da: “b.5) Nafarroako Odol eta Ehun Bankua.”

Halaber, kentzen da Osasunbidearen Estatutuetako 39. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letra.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Lehengo zentroari buruz eginiko aipamenak.

Indarreko araudi guztian Nafarroako Odol Banku eta Odol-transfusioen Zentroari buruz eginiko aipamenak ulertu beharko dira Nafarroako Odol eta Ehun Bankuari buruz eginikotzat.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Berehalako garapena.

Nafarroako Gobernuaren ardurapean ipintzen da foru lege honen berehalako garapena egitea, hiru hilabeteko epean.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arauak indargabetzea.

Foru lege honetan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak indarririk gabe uzten dira.

**Azken xedapenetan lehena.** Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeak eskatzen dituen erregelamendu mailako xedapen guztiak eman ditzan.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarrean sartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Legea, Nafarroako Osasun Mentalari buruzkoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko azaroaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen Nafarroako Osasun Mentalari buruzko Foru Legea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Foru Legea, Nafarroako Osasun Mentalari buruzkoa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoa ezartzen duena.**

#### ZIOEN AZALPENA

Europak bere helburuetako baten gisara hartu du osasun mentala, eta helburu hori Nafarroako Foru Komunitatearen helburua ere bada, Osasun Sistema Nazionalaren helburua den bezala. Osasun Sistema Nazionalaren Osasun Mentalaren Estrategiak, Lurraldeen arteko Kontseiluak 2006eko abenduaren 11n onetsitakoak, zenbait ekimen ezarri zituen nahaste mentala daukaten pertsonen zuzendutako prebentzio, diagnosi goiztiar, tratamendu, errehabilitazio eta gizarteratze jarduerak bultzatzeko.

Nafarroan, 1986ko erreforma psikiatrikoak jada bilatzen zuen pertsona horiek ahal den eskubide gehien izan ditzaten, edo, gutxienez ere, gainerako herritarren eskubide berak. Nafarroako Ospitale Psikiatrikoak urtetan garrantzi handiko eginkizun bat bete bazuen ere, bai osasun laguntzari dagokionez eta egoitza alderdiari dagokionez, bai babesik gabe dauden gaixotasun mentalen bat duten pertsonen babes integrala bilatzeari dagokionez, Erreforma Psikiatrikorako Ministerio-batzordearen 1985eko txostena exijentzia sozial eta familiarren eta interesdunen exijentzien ondoriozko erreakzio gisa sortu zen, eta funtsezko aldaketa bat eragin zuen osasun mentalaren laguntza ulertzeko moduan. Horrela, Ospitale Psikiatrikoak bere izena eta edukia aldatu zituen, eta San Frantzisko Xabierkoa Zentro Psikogeriatriko bihurtu

zen abuztuaren 17ko 246/1998 Foru Dekretuaren bidez.

Jada erreforma psikiatrikorako txostenean zehaztu zen foru erkidegorako osasun mentaleko plan bat jarriko zela abian.

Planak, diziplina arteko ikuspegi biopsikosozial batean oinarrituta zegoenak, bere baitan hartzen zuen osasun mentala osasun sistema orokorrean integratzea eta laguntza sare oso bat sortzea.

Aldi berean, Osasun Mentaleko Zuzendaritza sortu zen, maila kuantitatiboan eta kualitatiboan jauzi handi bat emateko bidea emanen zuen egitura batekin. Garai hartan, gaixotasun mentalak zituzten pertsona asko eroetxe eta asilo gisako ospitale psikiatriko izandakoetatik atera eta gizarteratu ahal izan ziren, eta ahalegin aktibo handi bat egin zen pertsona horiei lotutako estigma deuseztatzeko.

Erreforma psikiatrikoak, funtsean, izaera integral eta integratzailea izan zuen erkidegoan eta gizarte-ehunaren osotasunean, eta baliagarri gertatu da antolamendua dela-eta egin diren aldaketa prozesuetan inplikaturiko agenteen parte-hartzea bultzatzeko. Horren ondorioz, Osasunari apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorraren esparruan, foru erkidegoan zenbait bitarteko garatu izan dira.

Gaur egun, eraldaketa-neurri garrantzitsuak planteatzen dira, batetik, Nafarroan osasun mentala bultzatzeko, laguntza komunitarioaren ereduari jarraituz, eta, bestetik, Osasun Mentalaren Sarea horren arabera antolatzeko. Izan ere, horretarako konpromisoak hartu ziren Nafarroako Osasun Plan Estrategikoan, zeina hain beharrezkoa izan den, eta Osasun Mentalaren Estrategia Nazionalan; gainera, premiazkoa da San Frantzisko Xabierkoa Zentro Psikogeriatrikoaren plan zuzendaria egitea, errealitatearen eta duen inguruaren arabera betiere.

Behin baino gehiagotan esan izan da osasun mentalaren bigarren erreforman edo erreformaren bigarren fasean gaudela.

Neurri horien artean daude osasun mentaleko zuzendaritza bat sortzea, zentro psikogeriatrikoaren plan zuzendaria garatzea eta programa berriak abian jartzea.

San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren plan zuzendariaren garapenak berekin dakar haren egitekoan funtsezko aldaketa bat egitea, eta baliabideak unitate eta programa berri bilakatzea. Horrekin Osasun Mentalaren Sareko laguntza-zerbitzuen eskaintza handitu nahi da. Horrek berekin dakar erakundea desagertzea erotxe gisa, eta unitate berriak sortzea; unitate horiek, orain, beste tresna batzuen gisara sartuko dira sarearen antolamenduan.

Eremu sozio-sanitarioa sartzeari alde horretako berritasun nagusia, zeren eta gaur arte izan ez duen edukia ematen baitzaio eta konponbide bat aurkitzen baitu osasun mentalaren arlorako, hain zuzen ere orain arte ez bezala.

Laguntza-programa asertziozkoak eta komunitarioak jarri behar dira abian, eta esku-hartze goiztiarrekoak, psikoterapiakoak, nortasunaren nahasteetarakoak eta gaixoen oneratzeko bestelako programa gaurkotuagoak, osasun mentaleko gaixoen premiei erantzun egokituagoa emateko.

Programa berri hauek –esate baterako, patologia dualeko unitateak, espetxe-psikiatriako unitatea, segurtasun handiko unitatea, nerabeentzako subakutuen unitatea, drogazaleen unitatea, haur eta gazteen unitatea, etorkinentzako programak, bazterkeria pairatzeko arrisku gehien duten pertsonentzakoak, etxerik gabekoentzakoak– legean jasota ageri behar dute, lan-ildoak zehazte aldera, zainketen jarraitutasuna ziurtatze aldera eta laguntzaren zatikatzea ekidite aldera.”

Gaur egun, osasun mentalaren arloko estrategia osoa Helsinkiko Adierazpenaren oinarritzen da. Izan ere, adierazpen horrek nahaste mentalen arloko sustapenaren eta prebentzioaren ikuspegi integratuaren alde egin zuen, bai eta erakundeen arteko tratamenduaren eta koordinazioaren aldeko ikuspegia ere. Halaber, nahaste mentala duten pertsonen laneratzea eta gizarteratzea sustatzen ditu.

Nafarroako Osasun Mentalaren Sarea etorkizunerako orientatu beharra dago helburu berritu batekin, hain zuzen ere Nafarroako herritarren premietarako laguntza arloko emaitzarik onenak bermatuko dituen antolamendu-eredu baten bitartez. Haren egiturak honakoetan oinarritutako balioak sustatu eta proiektatu beharko ditu: kalitatea, ebidentzia, lidergoa, iraunkortasuna, segurtasuna, berrikuntza eta harreman etikoak.

## I. KAPITULUA

### Xedapen Orokorrak. Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura. Osasun Mentalaren Sarea

**1. artikulua.** Foru lege honen xedea.

Foru lege honek hurrengoak ditu xede:

a) Arretaren paradigma aldatzea osasun mentalaren arloko laguntzaren antolaketa ulertzeko moduari dagokionez. Paradigma horretan, herritarrek giza eskubideekiko erakusten duten kontzientzia eta sentiberatasun gero eta handiagoek izanen dute eragina, eta erabiltzaileei eta haien familiei emanen die protagonismoa beren premiak definitzeari dagokionez.

b) Gurasoen eta eskolaren egitekoa indartzea pertsonaren bizitzaren lehen urteetan, gaixotasun mentalaren detekzio goiztiarrerako modu gisa; osasun mentala sustatzea lanean; zahartze mental osasungarria babestea; gaixotasun mentala izan dezaketen arrisku-taldeekin lan egitea; deprezioari eta suizidioari aurrea hartzea; indarkeriari eta substantzia kaltegarrien kontsumoari aurrea hartzea; espetxean gaixo mentalei laguntzen esku hartzea; desabantaila sozialak murriztea eta estigmatizazioari aurrea hartzea, Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren programen bidez.

c) Kalitate sistema ezartzea zentro berekietarako zein itunduetarako, laguntza etengabe hobetzea ahalbidetzeko.

d) Informazio sistema bat ezartzea, teknologia berrietan oinarritua, zeinak aukera emanen baitu laguntzarako tresna publiko edo itunduen artean komunikazioa ezar dadin eta haien jardueretan koordinazioa eta integrazioa egon daitezen. Halaber, gaixoen osasunaren gaineko jardueren kalitatea eta eragina ebaluatuko dira, adierazleen multzo baten bidez.

e) Osasun mentalerako garrantzi handieneko prozesu klinikoetan praktika klinikoko gidak erabil daitezten sustatzea. Prozesu horiek, betiere aplikatu daitezkeen ebidentzia kliniko onenean oinarrituko dira, eta jarduteko, zerbitzuak integratzeko eta ebaluazioa egiteko moduak bilduko dituzte.

f) Mekanismo, erakunde eta sareak sortzea eta bultzatzea, bai laguntza erakoak bai herritarrei zuzendutakoak, Osasun Mentaleko Estrategian deskribaturiko printzipioak abian jartzeko, ezartzeko eta garatzeko baldintzak ezarri ahal izateko. Hona:

- Autonomia.
- Jarraitutasuna.

- Irisgarritasuna.
- Ulergarritasuna.
- Ekitatea.
- Oneratze pertsonala.
- Erantzukizunak hartzea.
- Kalitatea.
- Eraginkortasuna.
- Efizientzia.

g) Antolamendu erako neurriak eta aurrekontu-neurriak ezartzea, bermatzeko interesa duten talde guztiek parte har dezaten kalitatearen hobekuntza jarraituko prozesuetan.

h) Osasun mentaleko arazo garrantzitsuenetan, prozesuen arabera kudeaketa sartzeko eta sustatzea, gaixoei laguntza ematen edo haien ingurunean esku hartzen duten edo esku har dezaketen profesionalen eta tresna sanitario, sozial edo komunitario desberdinen –berekien nahiz itunduen– jarduerak integratuz.

i) Profesionalen prestakuntza jarraitua eta ikerketa bultzatzea, hobekuntza jarraiturako elementu gisa.

j) Nafarroako Foru Komunitatean osasun mentalaren arlorako dauden laguntza-zerbitzuak berrantolatzea eta osasun mentaleko sarea osatzen duten zentroak eta tresnak egungo beharriaz netara egokitzea.

Horretarako, honakoak egin beharko dira:

1. Osasun Mentaleko Zuzendaritza sortzen da. Kudeaketarako organo zentrala izanen da, osasun mentalaren arloko programen eta jardueren erantzukizun tekniko gorena izanen duena Nafarroako Osasun Erregioaren esparruan. Haren egitura eta funtzionamendua definitu eta erregulatzea, laguntza prozesuaren kudeaketa klinikora orientaturiko kudeaketa autonomoa duen entitate independente gisa. Osasun Mentaleko Zuzendaritzak honako helburu orokorrak izanen ditu:

a) Nafarroako Osasun Mentalaren Plana presatzean eta gaurkotuta edukitzea.

b) Osasun Mentalaren Sarearen plangintza egitea eta hura antolatu eta ebaluatzea.

c) Nahaste mentalak dituzten edo osasun mentaleko laguntzarako premia duten pertsonen osasun mentala, prebentzioa, laguntza, zainketak eta errehabilitazioa sustatzea. Nahaste mentalak dituzten pertsonekin lotu ohi den estigma deuseztatzen eta pertsona horien egoera normalizatzen laguntzea.

d) Nafarroako herritarrei behar diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak ematea diagnosira-ko, tratamendurako eta errehabilitaziorako.

e) Kalitatezko osasun laguntze ematea, esleututako populazioaren osasun mentaleko premiak asetzera bideratutako programen bitartez. Bilatuko da sareko tresna desberdinetako edo bestelako baliabide, maila, zerbitzu edo departamentuetako profesionalen artean ezagutza, garapen, antolamendu eta koordinazio hobekuntza.

f) Ikerketarako, prestakuntza jarraiturako, aurre-gradurako, gradu ondokorako eta espezializazioko jarduerak eta programa zientifikoak garatzea eta haietan laguntzea eta parte hartzea.

g) Nafarroako Osasun Planetik eta, horren ondorioz, Osasun Mentaleko Planetik eta nazio mailako eta Europako jarraibideetatik heldu diren eginkizunak erantzukizunez betetzea eta haien dagozkien jarduerak aurrera eramatea.

h) Prozesuen arabera laguntza kudeatzea.

i) Intereseko taldeen parte-hartzea laguntzaren antolaketan eta hobekuntzan integratzea.

j) Osasun Mentaleko laguntza-zerbitzu diziplina anitzekoak sortzea, psikiatreek, psikologo klinikoek, erizaintzako diplomadunek, gizarte-langileek, okupazio-monitoreek, erizaintzako laguntzaileek eta planen helburuak ziurtatzeko egoki irizitako bestelako langileek osatuak: Drogamenpekotasun Plana, Espetxe-psikiatriako Plana, Nerabeei Laguntza Emateko Plana eta sor daitezkeen bestelakoak.

2. Nafarroan, Osasun Mentaleko Sarearen zerbitzuak eta zentro berekiak antolatzen dira, eta hiru arlo bereizten dira: ospitaleratzea, erkidego-laguntza eta osasun mentaleko zentroak eta osasun mentaleko tarteko baliabideak.

3. Zentro Psikogeriatrikoa desagertzen da Osasun Mentaleko Zuzendaritzari atxikitako erakunde gisa, eta haren orde, arloetan integraturiko unitate desberdinak agertzen dira. Zentro Psikogeriatrikoaren zuzendaritza amortizatzen da, eta haren baliabide teknikoak eta laguntzazkoak dagozkien arloetan integratzen dira, beren izatearen arabera, ospitaleratze arloko baliabide gisa, tarteko baliabide gisa edo entitate sozio-sanitarioko unitate gisa. Haien egitura administratiboa Osasun Mentaleko Zuzendaritzari atxikitzen zaio, eta haren antolamenduzko alderdiak eta alderdi administratiboak zentralizatu eta indartzen dira Osasun Mentaleko goi erakunde berriaren bitartez. Amortizatzeak diren Zentro Psikogeriatrikoko unitate eta baliabideak jarduera eta egitura berriak finantzatzeko eta haiek ezartzeko erabiliko dira.

**2. artikulua.** Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura.

1. Osasun Mentaleko Zuzendaritza sortzen da, eta kudeaketarako organo zentral gisa egituratzen da. Organo zentral horrek, izan ere, Osasun Mentaleko programen eta jardueren erantzukizun tekniko gorena hartzen du bere gain, Nafarroako osasun erregioaren esparruan.

2. Osasun Mentaleko Zuzendaritzak lehentasun gisa izanen du Nafarroako Osasun Mentaleko Plana prestatu, gaurkotu eta abian jartzea, baliabide berekiekin eta Osasun Departamentuaren Plangintza Zerbitzuarekin lankidetzan.

3. Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren barruan honako zuzendaritza-organok sortzen dira:

a) Osasun Mentaleko arloko laguntza-zerbitzuak sortzen dira, beren zerbitziburuekin. Honakoak izanen dira arloak:

- Ospitaleratzearen Arloko Zerbitzua.
- Erkidego-laguntzaren Arloko Zerbitzua eta Osasun Mentaleko Zentroak.
- Tarteko Baliabideen Zerbitzua.

b) Kudeaketa Zerbitzua sortzen da. Hari atxikitzen zaizkio Administrazio Atala eta Zerbitzu Orokorren Atala, bai eta Zentro Psikogeriatrikoko haren menpeko unitateak ere.

c) Langileriaren Atala sortzen da, Kudeaketa Zerbitzuari atxikia. Zentro Psikogeriatrikoko Administrazioaren Ataleko lehenagoko Langileria Unitatea integratzen du.

d) Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoa sortzen da. Hari atxikitzen zaizkio Osasun Mentaleko Zuzendariordetzaren Arloko eta Zentro Psikogeriatrikoko burutzak, haien menpeko unitateekin.

4. Honakoak amortizatzen dira:

a) Zuzendariordearen lanpostua eta Osasun Mentaleko Zuzendariordetzako Programen buruaren lanpostua amortizatzen dira.

b) San Frantzisko Xabierkoa Zentro Psikogeriatrikoko Laguntza eta Prestakuntza programetako zuzendariaren lanpostua eta zuzendari teknikoaren lanpostua amortizatzen dira, bai eta Eguneko Zentroko zuzendariordearen lanpostua ere.

5. Gaur arte Errehabilitazioko Klinikari atxikitako Farmaziako eta Dietetikako Atala Osasun Mentaleko Zuzendaritzari atxikitzen zaizkio.

6. Osasun Mentaleko Zuzendaritzan integraturiko baliabideak foru lege honetan ezarritako organoek kudeatuko dituzte.

**3. artikulua.** Une honetan, honako baliabideek osatzen dute Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren Sarea:

1. Osasun Mentaleko Zuzendaritza.

2. Erkidego-laguntzaren Arloa eta Osasun Mentaleko Zentroak: Tuterako eta Lizarrako barrutiei atxikitako baliabideek menpekotasun organiko bikoitzari eutsiko diote: dagokien barrutiaren menpekotasun organikoa eta Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren menpekotasun funtzionala. Honako baliabideek osatzen dute Osasun Mentaleko Zentroen Sarea:

- IA (Alde Zaharra)
- IB (Burlata)
- IIA (Arrosadia)
- IIB (Ermitagaña)
- IC (Arrotxapea)
- IIC (Donibane)
- III (Lizarra)
- IV (Tafalla)
- V (Tutera)

3. Tarteko Baliabideen Arloa: Tuterako eta Lizarrako barrutiei atxikitako baliabideek menpekotasun organiko bikoitzari eutsiko diote: dagokien barrutiaren menpekotasun organikoa eta Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren menpekotasun funtzionala. Honako baliabideek osatzen dute Tarteko Baliabideen Arloa:

- Errehabilitazio Klinikak.
- "Natividad Zubieta" Haur eta Gazteen Eguneko Ospitalea.
- Osasun Mentaleko eguneko ospitaleak: I. Eguneko Ospitalea eta II. Eguneko Ospitalea Tuterako Eguneko Ospitalea.
- Drogamenpekotasunetarako Eguneko Ospitalea.

4. Ospitaleratzearen Arloa: Nafarroako Ospitaleari, Bideko Ama Birjina Ospitaleari eta Tuterako Barrutiari atxikitako baliabideek menpekotasun organiko bikoitzari eutsiko diote: dagokien barrutiaren menpekotasun organikoa eta Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren menpekotasun funtzionala. Honako baliabideek osatzen dute Ospitaleratzearen Arloa:

- Nafarroako Ospitaleko Ospitaleratze Psikiatrikoko Unitatea.

- Bideko Ama Birjina Ospitaleko Ospitaleratze Psikiatrikoko Unitatea.

- Tuterako Reína Sofía Ospitaleko Ospitaleratze Psikiatrikoko Unitatea.

5. Eremu soziosanitarioa San Frantzisko Xabierkoaren Zentro Psikogeriatrikoko egungo baliabideak eta unitateak ondoren, beren laguntza-edukiaren arabera, dagokien arloaren edo esparru sozio-sanitarioaren menpe geratuko dira.

## II. KAPITULUA

### Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren antolaketa

**4. artikulua.** Zuzendaritzako, kudeaketako eta parte-hartzeko organo gorenak.

Osasun Mentaleko Zuzendaritza modu deszentralizatuan kudeatuko da, Gobernu Kontseiluaren eta Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen zuzendaritza gorenaren pean; hain zuzen ere honako organoen bitartez:

a) Zuzendaritza organoak

- Zuzendaritza Batzordea.

- Osasun Mentaleko zuzendaria.

- Plan Soziosanitarioaren koordinatzailea

- Arloko laguntza-zerbitzuetako buruak.

- Kudeaketa Zerbitzuko burua.

- Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoko burua.

b) Kontsulta eta partaidetza organoak: Laguntzako Batzar Teknikoa.

**5. artikulua.** Zuzendaritza Batzordea.

1. Zuzendaritza Batzordea honakoek osatuko dute: Osasun Mentaleko zuzendariak, arloko laguntza-zerbitzuetako buruek, Kudeaketa Zerbitzuko buruak eta Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoko buruak.

2. Zuzendaritza kargudunetako batek idazkari lanak eginen ditu eta hartutako erabakien aktak eginen ditu.

3. Zuzendaritza Batzordeko burua Osasun Mentaleko zuzendaria izanen da, bera baita haren zuzendaritza gorenaren arduraduna. Batzordeko buruak zuzendaritza taldea zuzendu eta koordinatuko du, hari informazioa emanen dio eta taldearen kudeaketa kontrolatuko du.

4. Zuzendaritza Batzordeak helburu gisa izanen du Osasun Mentaleko giza baliabideak eta baliabide fisiko eta finantzarioak bermatzea, bai eta laguntzako helburuak eta helburu finantzarioak lortzea ere. Horrek kalitate eta efizientzia mailak igotzea ekarri beharko du.

**6. artikulua.** Osasun Mentaleko zuzendaria.

Osasun Mentaleko zuzendaria, Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen zuzendaritzapean, kudeaketarako organo zentrala izanen da eta osasun mentalaren arloko programa eta jardueren ardura tekniko goren hartuko du, Nafarroako osasun erregioaren esparruan.

**7. artikulua.** Osasun Mentaleko zuzendariaren eginkizunak.

Osasun Mentaleko zuzendariak honako eginkizun eta eskurantzak izanen ditu.

a) Nafarroako Osasun Mentalaren Plana prestatzean eta gaurkotuta edukitzea.

b) Osasun Mentalaren Sarearen ordezkaria izatea eta sare horren agintari goren eta ardurdun nagusia izatea.

c) Honakoetan jardutea: osasun mentaleko zentro, tresna, unitate, zerbitzu eta profesionalen eta prebentzioko, sustapeneko, laguntzako, errehabilitazioko eta laneratzeko programen goi zuzendaritza teknikoa, programazioa, koordinazioa, kudeaketa eta ebaluazioa egitea, bere esparruari dagokionez.

d) Gaixoari emandako arretan eta zainketetan, laguntzaren kalitatea, konfidentzialtasuna, pertsonalizazioa eta humanizazioa sustatzea, eta gaixoen eta familiaren autonomia eta laguntza-prozesuak inplikazioa sustatzeko politikak bultzatzea.

e) Nafarroako Osasun Planaren eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren helburuen garapena sustatzea, bai eta jarraibide nazional eta europarretatik heldutakoena ere. Kudeaketa kliniko bultzatzea. Helburuak eta programazioak egitea eta jarduerak zuzentzea.

f) Osasun Mentalaren Sarearen zerbitzuen zorroa proposatzea, dauden zentro, tresna, zerbitzu edo unitateekin, eta inplikaturiko baliabideak antolatzea.

g) Deribazioak egiteko prozedurak, arauak, zirkuak eta irizpide zehatzak ezarri eta aplikaraztea, arintasuna eta gaixoentzako laguntza integratua bermatzeko.

h) Sare osoaren urteko eta urte anitzeko planak garatu, proposatu eta kudeatzea; organo

eskudunei plan horien berri ematea, eta, aldizka, kudeaketari buruzko txostena edo oroitidazkia aurkeztea.

i) Osasun Mentaleko Sareak eta Oinarrizko Osasun Laguntzako Sareak gainerako zentro eta zerbitzu espezializatuekin eta beste zentro, organismo edo departamentu batzuekin daukaten koordinazio funtzionala bermatzea.

j) Informazio sistema bat sortu eta mantentzea, informazio klinikoari behar den moduan eusteko eta osasun zerbitzu guztien arteko informazio-fluxu egokiak bermatzeko, berariazko erreferentzia eginez historia klinikoa eta jarduera-erregistroak osatzeko arauak.

k) Osasun mentalaren arloko ikerketa- eta irakaskuntza-programak egin eta onets daitezzen sustatzea.

l) Itundutako baliabideak kudeatzea. Deribazioak baloratu, aitortu eta kontrolatzea. Osasun mentalaren arloko laguntza-prestazioak eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskabideak baloratu eta, kasua bada, baiestea.

m) Kalitate integraleko sistema bat garatzea, gaixoak jasotako zerbitzuaren eta haren emaitza klinikoaren kalitatea etengabe hobetzen eta ebaluatzen dela bermatzeko. Zuzendaritzari atxikitako zentro eta zerbitzuetako arduradunak ebaluatzea eta ebaluazio horren berri ematea.

n) Beste sektore publiko eta itundu batzuekiko eta baliabide komunitarioekiko lankidetzeta eta koordinazioa sustatzea.

o) Daukan karguarengatik sartzen deneko zuzendaritzako edo partaidetzako organoetan aktiboki parte hartzea. Bere gain hartzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak esleitzen dizkion eginkizun guztiak.

**8. artikulua.** Osasun Mentalaren Arloko Laguntza Zerbitzuetako buruak.

Arloko laguntza-zerbitzuetako buruak dira beren arloko osasun-zerbitzu eta -jarduerak eta zerbitzu eta jarduera tekniko eta laguntzakoak zuzenduko dituztenak, Osasun Mentaleko zuzendariaren pean.

**9. artikulua.** Osasun Mentaleko arloko laguntza-zerbitzuetako buruen eginkizunak.

Honakoak izanen dira arloko laguntza-zerbitzuetako buruen eginkizunak eta atribuzioak:

a) Laguntza eta kudeaketa plana egitea eta beren esparruko jarduerak, laguntza prebentiboarekin, senda-laguntzarekin eta errehabilitazioko laguntzarekin lotutakoak, kudeatu eta zuzentzea,

kalitateko, lidergoko, efizientziako eta segurtasuneko maila onenak lortzeko.

b) Zerbitzuen Zorroa lantzea eta indarrean edukitzea. Oinarrizko prozesuak definitzea. Jarduteko gidak, prozedurak edo ohiko protokoloak sistematizatzea. Oinarrizko funtzionamendu arauak garatzea eta gaixoen zirkuituak definitzea. Emaizte buruzko informazioa ematea, aldizka.

c) Antolamendu eredua proposatzea, jarduerari erantzun egokia emateko, eta, era berean, ohiz kanpoko berrantolaketa proposatzea baldin eta beharrezkoa bada emaitza hobekuntza lortzeko laguntza-jarduera integralean eta integratuan, jarduera administratiboan, irakaskuntza-jardueran edo ikerketa-jardueran.

d) Berrikuntzarako, hobekuntza jarraiturako eta kalitatearen ebaluaziorako eskura dauden egiturazko edo antolamenduzko mekanismoak sustatu eta abian jartzea. Dokumentazio klinikoko, informazioko eta laguntzaren kalitatea kontrolatzeko sistema bat mantentzea, bai eta jarduerari buruzko erregistroak eta laguntzarako prozedura administratiboak ere. Oroitidazkiak ezartzen diren aldien arabera egitea.

e) Laguntza-jarduerari, irakaskuntza-jarduerari edo ikerketa-jarduerari buruzko proposamenak egitea edo jasotzea, eta haiek administratzea, onespena eman ondoren. Irakaskuntzako eta ikerketa-ko urteko programak egitea.

f) Dagokion esparru funtzionalean, laguntza-emaitzak eta emaitza zientifikoak ebaluatzea. Halaber, bere unitateetako arduradunak eta profesionalak, oro har, ebaluatzea, eta lortutako emaitzei buruzko informazioa ematea.

g) Profesionalekin ekitaldi bakoitzerako helburuak ezarri eta ituntzea, eta esleitutako aurrekontuko baliabideak administratzea.

Hori guztia, Osasun Mentaleko Saretik eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzutik heldu diren jarraibideak betez.

h) Atxikitako unitate organiko eta funtzionaletako arduradun guztiak aldizka ebaluatzea.

i) Bere esparruko jarduerak beste unitate organiko, tresna, zentro, zerbitzu edo departamentuetako jarduerekin koordinatzea. Osasun Mentaleko Zuzendaritzari proposatzea gaixoak beste arlo edo zentro batzuetara deriba ditzan, bere eskumeneko laguntza-aukerak gaindituta baldin badaude.

j) Bere titulazioari dagozkion laguntza-jarduerak garatzea.



k) Osasun Mentaleko zuzendariari informazioa eta aholkua modu jarraituan ematea.

l) Daukan karguarengatik sartzen deneko zuzendaritzako edo partaidetzako organoetan aktiboki parte hartzea. Osasun Mentaleko zuzendariari esleitzen zaizkion funtzio guztiak bere gain hartzea.

#### **10. artikulua.** Osasun Mentaleko Arloak

1. Honakoak ezartzen dira Osasun Mentaleko Arlo gisa:

- Ospitaleratzearen Arloa:
- Erkidego-laguntzaren Arloko Zerbitzua eta Osasun Mentaleko Zentroak.
- Tarteko Baliabideen Arloa.

2. Arloko laguntza-zerbitzuetako buruak izanen dute kasuko arloa koordinatzeko erantzukizuna, bai eta Osasun Mentaleko zuzendariak esleitzen dizkien gainerako eginkizunak garatzeko erantzukizuna ere.

**11. artikulua.** Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoko burua.

Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoko buruak bere kargu dauzka sareak eskaintako tresna, zentro, unitate edo programetako laguntza-baliabide ez-fakultatiboan plangintza, zuzendaritza eta ebaluazioa, bai eta zuzenean esleitzen zaizkion baliabideen kudeaketa ere.

Honako eginkizun eta atribuzioak dagozkie Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoaren buruari:

a) Helburuak definitu eta garatzea, Nafarroako Osasun Mentaleko Sarearen helburuekin bat, eta bere kargu dauzkan profesionalen jarduerak eta emaitzak koordinatu eta ebaluatzea.

b) Esleitutako baliabideen plangintza, antolaketak eta koordinazioa, kalitate hobea lortzeko. Bere kargu dauzkan unitateen funtzionamendua, haiegan sarturiko langileak eta profesionalak ebaluatzea.

c) Zuzenean esleituta dauzkan giza baliabideak kudeatzea eta laguntzako langile ez-fakultatiboen premiak eta eskuragarritasuna koordinatzea.

d) Sustatzea langile ez-fakultatiboek eta langile fakultatiboek ematen dituzten zerbitzuak ezartzen diren laguntza-prozesuen kudeaketarako beste baliabide batzuk integratzen direla.

e) Esleitutako baliabide materialak, ekipamendu klinikoarekin lotutakoak eta osasun produktuak

modu eraginkor eta efizientean kudeatzea, eta haiek egoki erabili eta mantentzeko sustatzea.

f) Zainketen eta laguntzaren kalitatea hobetzen lagun dezaketen berrikuntzarako edo hobekuntzarako neurriak edo ekimenak proposatzea.

g) Unitateen laguntza-jarduera ez-fakultatiboa koordinatzeko prozedurak finkatu eta administratzea. Zentroyen eta profesionalen arteko koordinazio orokorra erraztea.

h) Zerbitzu eta unitateetako laguntzako arduradunen edo/eta arduradun fakultatiboan jarduera koordinatzea, eta langileen kudeaketaren, irakuntzaren eta prestakuntzaren alderdietako irizpideen batasuna bermatzea.

i) Osasun Mentaleko zuzendariak berariaz eskuordetutako gainerako eginkizunak hartzea.

j) Osasun Mentaleko zuzendariari informazioa eta aholkua modu jarraituan ematea.

k) Daukan karguarengatik sartzen deneko zuzendaritzako edo partaidetzako organoetan aktiboki parte hartzea. Osasun Mentaleko zuzendariari esleitzen zaizkion funtzio guztiak bere gain hartzea.

**12. artikulua.** Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoko buruak.

1. Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoko buruaren azpian Erizaintzaren Arloko buruak egonen dira hierarkikoki.

2. Erizaintzaren Arloko buruak izanen dira esleitzen zaizkien erizaintzako unitateak koordinatzeko ardura izanen dutenak; halaber, Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Teknikoko buruak esleitutako gainerako funtzioak ere izanen dituzte.

**13. artikulua.** Kudeaketa Zerbitzuko burua.

Kudeaketa Zerbitzuko burua da Osasun Mentalaren Zuzendaritzako egitura administratibo eta langileen egitura osoaren ardura bere gain hartuko duena, betiere Osasun Mentalaren zuzendariaren menpean.

**14. artikulua.** Kudeaketa Zerbitzuko buruaren eginkizunak.

Honakoak izanen dira Kudeaketa Zerbitzuko buruaren eginkizunak eta atribuzioak:

a) Bere zerbitzuari atxikitako unitateen funtzionamendua zuzendu, koordinatu, sustatu eta ebaluatzea.

b) Osasun Mentalaren Zuzendaritzaren baliabide material finko eta mugikorren kontserbazio fun-

tzionala bermatzea, eta atxikitako ondarea egoki kudeatzea.

c) Urteko aurrekontuak prestatu eta kudeatzea, gastuetakoak zein diru-sarreretakoa.

d) Osasun Mentalaren Zuzendaritzako unitateen behar diren baliabide materialen hornikuntza kudeatzea; halaber, hornigai horiek egoki biltegiratu eta unitate eskatzaileei banatzen zaiela kudeatzea.

e) Osasun Mentalaren Zuzendaritzarako ibilgutuaren eta erabiltzen ari den ekipamenduen mantentze prebentiborako planak sustatu eta kontrolatzea, eta horiek guztiak konpondu eta birjarriko direla segurtatzea.

f) Ahal den hornikuntza-kontratu gutxien egin zerbitzuek funtziona dezaten, eta konponketa eta mantentze lan errazak egitea, haien zenbatekoak hornidura txikietarako ezarritako mugak gainditzen ez baditu.

g) Konturako ziurtagirien, material inbentariagarriaren fakturen, bestelako hornigaien, konponketa eta mantentze lan errazen eta laguntza tekniko kontratuen ordainketak baimentzea, organo eskudunak haien gastua onetsi badu.

h) Behar diren aplikazio informatikoak eta laguntza administratiboak ezar eta erabil daitezela eta funtziona dezatela zuzendu eta koordinatzea.

i) Osasun Mentaleko Zuzendaritzan langileria-aren arloko eginkizunak zuzendu, koordinatu, sustatu eta ebaluatzea.

j) Aldi baterako langileen kontratazioa baimendu eta formalizatzea, erregelamenduz ezarritako prozeduraren bitartez.

k) Falta arinengatiko diziplina-espeditentak ireki eta ebaztea.

l) Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren egitura organikoaren barreneko lanpostu zehatz bati langileak atxikitzea, eta lanerako ezgaitasun egoeran, guztizkoan edo absolutuan, dauden langileei edo lanerako gai izateari buruzko deklarazio proposamenak egitea.

m) Erregelamendu bidez ezarritako lanaldi murrizketak, soldata gabeko lizentziak, amatasuneko lizentzia soldatadunak, bularra emateko baimenak eta gaixotasunaren ondorioz baja egoeran dauden langileen toki aldatzeak erabakitzea.

n) Zerbitzua dela-eta egin beharreko joan-etorriak baimentzea.

o) Osasun Mentaleko Zuzendaritzari atxikitako langileekiko prozedura administratiboan eta lan-

harremanen erantzukizuna hartzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzarekin batera, azken horretatik jasotako jarraibideak betez.

p) Hartzekoei eta emandako zerbitzuei buruzko ziurtagiriak ematea.

q) Nominak, aseguru sozialak, osasun laguntza eta langileen bestelako prestazio ekonomikoak egituratu eta kudeatzea. Langabeziako sorospena jasotzeko behar den dokumentazioa prestatzea. Hori guztia Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzak emaniko jarraibideak zorrotz betez.

r) Langileen erregistro integratua, langileen espeditentea, plantilla organikoa eta langileen zerrenda egin, mantendu eta gaurkotzea

s) Daukan karguarengatik sartzen deneko zuzendaritzako edo partaidetzako organoetan aktiboki parte hartzea. Osasun Mentaleko zuzendaria-ak esleitutako eginkizun guztiak bere gain hartzea, eta bereziki aginte-koadroaren lanketa koordinatzea.

**15. artikulua.** Kudeaketa Zerbitzuaren osaera.

1. Kudeaketa Zerbitzua honako atal eta unitateek integratzen dute.

- Langileria Atala.
- Administrazio Atala.
- Zerbitzu Orokorren Atala.

2. Atalek, uneoro, zerbitzuburuak esleitzen dizkien eginkizunak garatuko dituzte.

### III. KAPITULUA

#### Kontsulta eta partaidetza organoak

**16. artikulua.** Laguntzako Batzar Teknikoa.

1. Laguntzako Batzar Teknikoa Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren organo kolegiatu tekniko eta aholku-emailea da.

2. Laguntzako Batzar Teknikoak hartutako erabakiak ez dira lotesleak izanen Osasun Mentaleko Zuzendaritzarentzat plantillaren aldaketa edo gas-tua handitzea dakarten antolamendu eta funtzio-namendu gaietan.

3. Laguntzako Batzar Teknikoa honako kideek osatuko dute:

Berezko batzarkideak:

- Osasun Mentaleko zuzendaria, zeinak lehen-dakari gisa jardunen baitu.
- Plan Soziosanitarioaren koordinatzailea

- Arloko laguntza-zerbitzuetako buruak.
- Laguntzako eta Erizaintzako Zerbitzu Tekniko-ko burua.
- Kudeaketa Zerbitzuko burua, zeinak idazkari lanak eginen dituen, hizpidearekin baina botorik gabe.

Hautaturiko batzarkideak:

- Osasun Mentaleko ekipo eta programen arlo- etako zuzendarien bi ordezkari.
- Osasun Mentaleko psikiatren bi ordezkari.
- Osasun Mentaleko psikologoaren bi ordezkari.
- Osasun Mentaleko erizaintzako langileen bi ordezkari.
- Osasun Mentaleko gizarte laguntzaileen eta gizarte langileen ordezkari bat.
- Osasun Mentaleko titulurik gabeko langile sanitarioen bi ordezkari.
- Osasun Mentaleko zerbitzuen arloko entitate itunduen ordezkari bat.
- Osasun Mentaleko gainerako langileen ordezkari bat.
- Gaixotasun mentales ukitutakoaren elkar- teen ordezkari bat.
- Osasun Mentaleko okupazio-terapeuten ordezkari bat.

4. Berezko batzarkideek Laguntzako Batzar Teknikoko batzarkide izateari utziko diote Osasun Mentaleko Zuzendaritzan duten kargua uzten dutenean. Hautatutakoak bi urtez behin berrituko dira.

**17. artikulua.** Laguntzako Batzar Teknikoko batzordeak.

Laguntzako Batzar Teknikoaren barruan, haren funtzionamendua hobea izan dadin, komenigarritzat jotzen diren edo legez beharrezkotzat jotzen diren batzordeak sortuko dira.

**18. artikulua.** Laguntzako Batzar Teknikoaren bilkurak.

Laguntzako Batzar Teknikoak gutxienez ere bi hilabetez behin eginen ditu bilkura arruntak. Bilera bereziak, berriz, batzarburuak erabakitzen duenean eginen ditu, edo batzarkideen heren betek eskatzen duenean.

**19. artikulua.** Laguntzako Batzar Teknikoaren erabakiak.

Laguntzako Batzar Teknikoaren erabakiak gehiengo soilaz hartuko dira. Batzarra eratutzat

jotzeko, berriz, ezinbestekoa izanen da gutxienez ere batzarkide gehienak presente egotea, horren barne direla batzarreko burua eta idazkaria edo haien ordezkariak.

**20. artikulua.** Laguntzako Batzar Teknikoaren eginkizunak.

Osasun Mentaleko Laguntzako Batzar Tekniko-ak aholkua eta informazioa emateko eginkizunak izanen ditu, honako arloetan:

- Zerbitzuen zorroa.
  - Lanbideko jarduna ebaluatzeko eta zerbitzuen eta unitateen kalitatea ziurtatzeko irizpide teknikoak.
  - Kalitate optimoaren adierazleak eta estandar- rrak, eskura dauden giza baliabideen eta baliabide materialen arabera.
  - Prozedura eta dokumentazio klinikoak nor- malizatzeko irizpideak.
  - Osasun erregioaren esparru osoan aplika- ztekoak diren programak eta protokoloak.
  - Urteko irakaskuntza-plana.
  - Zentroen eta zerbitzuen funtzionamendu arau orokorrak.
  - Zuzendaritzaren helburuak eta urteko txos- tena.
  - Herritarrei arreta egiteko prozedura adminis- tratiboak.
  - Ebaluaziorako eta pizgarrietarako sistemak.
  - Berezarpeneko inbertsioen urteko banake- ta.
  - Zentroen aurrekontu banakatuak.
- Honakoak dira Laguntzako Batzar Teknikoaren eginkizunak:
- Osasun Mentalaren laguntzaren arloko hel- buruak zehaztea.
  - Osasun Mentalaren Sareko zentroen antola- mendua eta funtzionamendua onestea.
  - Laguntzaren kalitatea bermatzeko programa- rako ildo nagusiak ezartzea.
  - Zentroetako zerbitzuen zorroetan aldatetak proposatzea.
  - Eskatzen zaion gaietan, aholku teknikoa ematea ekipoen, programen eta erizaintzaren arlo- etako buruei.
  - Batzorde klinikoaren sorrera onestea, batzorde horien jardueren helburuak zehaztea eta funtzio-

namenduaren jarraipena egitea; halaber, batzorde horien eginkizunen balizko etetea erabakitzea.

g) Osasun jarduerarako arau teknikoak eta protokoloak prestatzea, horretarako bereziki prestatu-riko lantaldeen bitartez, eta proposamenen edukia dela-eta aldeko nahiz aurkako informazioa ematea.

h) Plan funtzionalari buruzko proposamenetan parte hartzea eta proposamenak egitea.

i) Osasun ekipamendurako Inbertsioen Planari buruzko nahitaezko txostena egitea.

j) Laguntzako adierazleen jarraipena ebaluatzea eta jarraipen hori egitea.

k) Osasunaren esparruan, irakaskuntza-jarduerak, prestakuntza jarraituko jarduerak eta ikerketa jarduerak sustatzeko programak garatzea.

l) Zentroetako laguntza-egiturak aldatzeko proposamenak egitea.

Laguntzako Batzar Teknikoen irizpena ez da sekula ere loteslea izanzen. Aurrekoa gorabehera, egindako irizpenetik aldentzen diren erabakiak Laguntzako Batzar Teknikoari formalki jakinarazi eta komunikatu beharko zaizkio.

**21. artikulua.** Laguntzako Batzar Teknikoko ordezkariak hautatzea.

Laguntzako Batzar Teknikoko sektoreetako ordezkariak martxoaren 21eko 78/1996 Foru Aginduaren bidez onetsitako eta Osasun kontseilariaren azaroaren 28ko 154/1997 foru Aginduaren bidez aldatutako hauteskunde araei jarraituz hautatuko dira.

#### IV. KAPITULUA

##### Karguak eta burutzak betetzeko modua

**22. artikulua.** Osasun Mentaleko Zuzendaritzako zuzendaritza-organoak betetzea.

Osasun Mentaleko Zuzendaritzako zuzendaritza-organoak honela beteko dira:

1. Osasun Mentaleko zuzendaria Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak libreki izendatuko ditu eta kenduko ditu kargutik.

2. Arloko laguntzako zerbitzuetako buruak, Kudeaketa Zerbitzuko burua eta Laguntza Tekniko eta Erizaintzako Zerbitzuko burua Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak libreki izendatuko ditu eta kenduko ditu kargutik, Osasun Mentaleko zuzendaria proposatuta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako

langileen artean. Betiere, arau bidez ezartzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

3. Osasun Mentaleko ekipoetako zuzendariak, eguneko ospitaleetako zuzendariak, Errehabilitazio Klinikako zuzendaria, Haur eta Gazteen Eguneko Ospitaleko zuzendaria eta Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren sareko programetako arduradunak –haren esparru organikoan daudenak, beraz– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak izendatuko ditu, abenduaren 2ko 217/1994 Foru Dekretuan ezarritako prozedura betez.

4. Zerbitzuburuak eta atal mediko eta laguntzazkoen buruak, organikoki Nafarroako Ospitalearen eta Bideko Ama Birjina Ospitalearen menpe egonen direnak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzeko eta lanpostuen betetzea arautzen duen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera izendatuko dira eta kenduko dira kargutik.

5. Erizaintzako buruak, unitateetako buruak (gaur egun pabilioiko arduradunak direnak) eta laguntzaren arlokoak ez diren atal eta unitateetako buruak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sartzeko eta lanpostuen betetzea arautzen duen azaroaren 22ko 347/1993 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera izendatuko dira eta kenduko dira kargutik.

6. Erizaintzaren Arloko buruak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak libreki izendatuko ditu eta kenduko ditu kargutik, Osasun Mentaleko zuzendaria proposatuta, OLT-DUE kategorian duten Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko plantillako langileen artean.

7. Izendapen libreko zuzendaritzako kargudunek guztizko dedikazioko araubidean eta lanerako guztizko eta erabateko eskuragarritasunez jardunnen dute.

**Lehenengo xedapen gehigarria.** Oinarrizko unitate organikoetako arduradunen atribuzioak.

Oinarrizko unitate organiko bakoitzeko ardura-dunei honako atribuzioak dagozkie:

a) Unitateari atxikitako langileentzako baimenak, lizentziak, oporrak eta joan-etorriak baimentzea, Kudeaketako zuzendaria esleituta dauzkan alderdietan izan ezin.

b) Lan eskubideen betetzea koordinatzea eta langileen laneko betebeharrak betetzea.

c) Langileekiko komunikazio prozesuak erraztea eta bultzatzea eta laneko giroa nahiz errendimendua eta produktibitatea sustatzea.

d) Kasuko unitateari atxikitako langileen jarduerak, lanak eta eginkizunak zuzendu eta koordinatzea, eta haiei lanpostua, txanda eta lanaldia esleitzea.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Unitate organikoak eta programak sortzea eta kentzea.

Osasun Mentaleko Zuzendaritza hobeki garatzeko behar diren unitate organikoak eta programak sortzea eta kentzea Osasun kontseilariaren eginkizuna da, betiere Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak proposatuta.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Barne-akoplamentu esparru berria.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan alde zuzeneko barne egokitzapenaren sistema arautzeko prozedura berezia ezartzen duen Osasun kontseilariaren urriaren 28ko 129/2008 Foru Agindua aldatzen da. Esparru berria ezartzen da, foru lege honetako 3. artikuluan aipatutako Osasun Mentaleko Sareko baliabide eta tresnekin eta Osasun Mentaleko Zuzendaritza atxikita geroan sor daitezkeen gainerakoekin. Une honetatik jada ez dago Anbulatorioen eta Ospitalez Kanpoko Laguntzaren Zuzendaritza.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Hizkuntza berdintzailea.

Foru lege honetako gaztelaniazko testuan, kargu-izenak edo lanpostuak aipatzeko genero gramatikal maskulinoko substantiboak erabiltzen diren kasuetan –esate baterako, director edo jefe de servicio– ulertuko da ekonomia hutsez aipatzen direla horrela, eta modu orokorrean aipatu nahi direla postu horiek, gizonetakoekin betetzen dituztenerako nahiz emakumeek betetzen dituztenerako, eragin juridiko berdinekin.

**Bosgarren xedapen gehigarria.** Ebaluazioa.

Foru lege honen aplikazioa eta bere menpeko zerbitzuen kalitatea ebaluatuko dira Politika publikoak eta zerbitzu publikoen kalitatea ebaluatzeari buruzko 21/2005 Foru Legean ezarritakoaren arabera.

Arestiko lerrokadan aipatutako ebaluazioa Osasun Mentaleko Zentro batenarekin osatu beharko da urte bakoitzean, Osasun Mentaleko Zuzendaritzak ezarri beharreko ebaluazio-eredu bati jarraituz. Urte bakoitzean ebaluatu beharreko zentron kopurua handituz joan da, hautatuko eredu finkatu ahala.

Halaber, Osasun Mentaleko Zuzendaritzaren urteroko memorian atal bat sartu beharko da, laguntza klinikoko nahiz herritarrekiko harreman-

ko jardunbide onen multzoa zerrendatu eta deskribatuko dituen.

**Xedapen iragankorra.**

Laguntza Soziosanitarioari buruzko Planeko koordinatzailea Osasun Mentaleko Zuzendaritzari atxikiko zaio, harik eta Nafarroako Laguntza Soziosanitarioari buruzko Planetik heldutako egitura bat, baliabide berekikoa, gaurkotu, garatu eta hornitu arte; betiere, gaur egun esleiturik dituen eginkizunak, atribuzioak eta mendekotasun funtzionala ezertan ere galarazi gabe.

Egoera horrek dirauen bitartean, eta testuinguru berriaren barruan, ondokoa xedatzen da:

- Lehentasun gisa ezartzea Ekintza Soziosanitarioari buruzko Planaren eguneratzea eta garapena.
- San Frantzisko Xabierkoa Zentro Psikogeriatrikoaren baliabide soziosanitarioen ardura ematea.
- Osasun Mentaleko Zuzendaritzako Zuzendaritza Batzordean batzordekide gisa parte hartzea.

**Azken xedapenetan lehena.** Arauak indargabetzea.

Indarrrik gabe uzten dira:

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko estatutuak ezarri zituen uztailaren 3ko 45/2006 Foru Dekretuko 39. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letra eta 43. eta 44. artikulua.

2. San Frantzisko Xabierkoa Ospitale Psikiatrikoko gobernu-organoei buruzko maiatzaren 15eko 103/1985 Foru Dekretua.

3. Abuztuaren 17ko 246/1998 Foru Dekretua, San Frantzisko Xabierkoa Ospitale Psikiatrikoa Zentro Psikogeriatriko bihurtzeko araubidea ezartzen duena.

Eta foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Abuztuaren 17ko 247/1998 Foru Dekretua aldatzea.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Adimen Osasuneko Zuzendariordeari atxikitako eguneko zerbitzuak eta errehabilitazio zerbitzuak berregituratzen duen abuztuaren 17ko 247/1998 Foru Dekretua aldatzen da, ondoren azaltzen den bezala:

1. 2.3 artikulua. Psikiatria Atala Osasun Mentaleko Haur eta Gazteen Egunko Ospitaleko Zuzendaritza izatera pasatuko da. Ordainsariak,

gainerako zuzendariekin egiten den bezala, egokitzat jotzen den mailaren arabera egokituko dira.

2. 2.3 artikuluan Haur eta Gazteen Eguneko Ospitaleko zuzendariari buruz jasotako izendapenari, 3.4 artikuluan Errehabilitazioko Klinikako zuzendariari buruz jasotako izendapenari eta 4.3 artikuluan Eguneko Ospitaleko zuzendariari buruz jasotako izendapenari dagokienez, Osasun Sareari atxikitako A eta B mailetak langileek bete ahalko dituzte.

**Azken xedapenetan hirugarrena.** Foru legearen garapena.

Ahalmena ematen zaio Osasun kontseilariari foru lege hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren xedapenak emateko.

**Azken xedapenetan laugarrena.** Aurrekontu-aldaketak.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak foru lege hau betetzeko behar diren aurrekontu-aldaketak egingen ditu.

**Azken xedapenetan bosgarrena.** Zuzendaritza karguak ordeztzea.

Osasun Mentaleko zuzendariak, ebazpen bidez, zuzendaritza karguak ordezteko araubidea ezarriko du, halako moduan non esleituta dauzkan eginkizunen eta atribuzioen jarraitasuna bermatuko baita.

**Azken xedapenen seigarrena.** Indarra hartzea.

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**Foru Lege proposamena, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroako Gobernu-ko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio-ko gainerako goi karguen gobernu onaren kodea, baita hari lotuta edo haren menpe diren zuzenbide publikoko entitateetakoena ere.**

*OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Legebiltzarrak, 2010eko azaroaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen ondoko Foru Lege proposamena aintzat hartzea: "Foru Lege proposamena, zeinaren bidez ezartzen baita Nafarroako Gobernu-ko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio-ko gainerako goi karguen gobernu onaren kodea, baita hari lotuta edo haren menpe diren zuzenbide publikoko

entitateetakoena ere". Proposamen hori Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu zuen eta 2010eko irailaren 17ko 90. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Legebiltzarrerera igor dezan publizitate instituzionala arautzeko foru lege proiektu bat.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko azaroaren 25ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Legebiltzarrerera igor dezan publizitate instituzionala arautzeko foru lege proiektu bat".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Foru Legebiltzarrerera igor dezan publizitate instituzionala arautzeko foru lege proiektu bat.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du publizitate instituzionala arautzeko foru lege proiektu bat igor dezan Legebiltzarrerera, zeinaren bidez kontzeptua definituko baita eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoek kontratuak egitean nahitaez bete beharreko irizpideak, baldintzak eta printzipioak ezarriko baitira.

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Baluarte Fundazioa premiatzen dira, euskararen presentziari eta garapenari dagokienez, aurrerapausoak eman ditzaten barneko errotulazioan, testu inprimatuetan eta webgunean.**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko azaroaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Baluarte Fundazioa premiatzen dira, euskararen presentziari eta garapenari dagokienez, aurrerapausoak eman ditzaten barneko errotulazioan, testu inprimatuetan eta webgunean".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Baluarte Fundazioa premiatzen dira, euskararen presentziari eta garapenari dagokienez, aurrerapausoak eman ditzaten barneko errotulazioan, testu inprimatuetan eta webgunean.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Baluarte Fundazioa premiatzen ditu, euskararen presentziari eta garapenari dagokienez, aurrera egin dezaten barneko errotulazioan, testu inprimatuetan eta webgunean, era horretan euskarara eguneroko tresna izan dadin, eta ez salbuespena, bere ohiko jardunean.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pirinioen Garapenerako II. Plana igor dezan.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko azaroaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pirinioen Garapenerako II. Plana igor dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pirinioen Garapenerako II. Plana igor dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aurtengo abendua baino lehen igor dezan Parlamentura, eztabaidatu eta onets dadin, Pirinioen Garapenerako II. Plana.

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Goi Ikuskaritzarekin harremanetan jar dadin, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aplikazioaren gaineko jarraipen bat egiteko.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko azaroaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Goi Ikuskaritzarekin harremanetan jar dadin, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aplikazioaren gaineko jarraipen bat egiteko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Goi Ikuskaritzarekin harremanetan jar dadin, Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aplikazioaren gaineko jarraipen bat egiteko.**

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuko Goi Ikuskaritzari eska diezaion Sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko Legearen aplikazioaren gaineko jarraipen bat egin dezan Nafarroako Foru Komunitatean.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuko Goi Ikuskaritzarekin harremanetan jar dadin mozio hau onesten denean, martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoa betetzen den ala ez aztertzeke egutegi bat ezartze aldera.



## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez dagoela ados pentsioen erreforma deitutakoarekin.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko azaroaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez dagoela ados pentsioen erreforma deitutakoarekin"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez dagoela ados pentsioen erreforma deitutakoarekin.**

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez dagoela ados pentsioen erreformari buruzko eztabaidan erretiro-adina nahitaez 67 urtera bitarte atzeratzeko aukera aintzat hartzearekin.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du pentsioen sistema publikoa ziurtatze aldera hartu beharreko neurrien artean ez dela jaso behar lan-sistemako eskubide sozialei dagokienez atzerapausorik edo urraketarik dakarrenik.

3. Nafarroako Parlamentuak erabaki du Espainiako Gobernuari eta Toledoko Hitzarmenean parte hartzen duten gizarte-eragileei igortzea erabaki hau.

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AP-15eko emakida-hartzailearekin negoziatu eta adostu dezan A-68ko 84. kilometrotik AP-68ra, Zaragozako norabidean, sartzea bideratzen duen erreia zabaltzea.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko azaroaren 26an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AP-15eko emakida-hartzailearekin negoziatu eta adostu dezan A-68ko 84. kilometrotik AP-68ra, Zaragozako norabidean, sartzea bideratzen duen erreia zabaltzea."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da AP-15eko emakida-hartzailearekin negoziatu eta adostu dezan A-68ko 84. kilometrotik AP-68ra, Zaragozako norabidean, sartzea bideratzen duen erreia zabaltzea.**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du AP-15eko emakida-hartzailearekin negoziatu eta adostu dezan A-68ko 84. kilometrotik AP-68ra, Zaragozako norabidean, sartzea bideratzen duen erreia irekitzea eta, horrenbestez, erabiltzea.

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatearen barruan dauden Estatuaren menpeko instalazio guztien errotulazioa gaztelaniaz eta euskaraz jar dezan.**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitatearen barruan dauden Estatuaren menpeko instalazio guztien errotulazioa gaztelaniaz eta euskaraz jar dezan".

Legebiltzarrak, 2010eko azaroaren 26an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2010eko azaroaren 8ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

## **Adierazpen politikoa, genero indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta**

### *OSOKO BILKURAK BERRETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko azaroaren 25ean egindako bileran, erabaki zuen berrestea Eledunen Batzarrak 2010eko azaroaren 2an onetsitako adierazpen politikoa, genero indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta. Hona testua:

“– Nafarroako Parlamentuak dei egiten dio gure Foru Komunitateko herritar guztien kontzientziari, tratu txarren aurka mobilizatu eta ekitera, gertakari izugarri horietarako inolako zigorgabetasun-zirrikiturik egon ez dadin.

– Nafarroako Parlamentuak dei egiten die herritarrei tratu txarren salaketan lagun dezaten,

indarkeria eta tratu txarrak pairatzen dituzten emakumeenganako nahiz haien seme-alabenganako babesa abian jartzen laguntzeko.

– Nafarroako Parlamentuak bere babesa helarazten die administrazioei, segurtasun kidego eta indarrei, botere judizialari nahiz indarkeria matxistaren gaitza gizartetik desagerrarazte aldera lanean atsedenek gabe ari diren entitate eta elkarte guztiei.”

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



